



ARGIA

Argia




cat

dog



cloud

rain



Andereino,
pixa!

In English,
please



NAFARROAKO HEZKUNTZA INGELESEZ IKASTEKO PROGRAMAREN ITOGINAK AGERIAN

EUSKARAZKO TELESAILEN
TXAKALALDIA MUNDU
MAILAKO BOOMAREN
GARAIA

PLAZIDA OTAÑO:
HISTORIA OFIZIALAK
EZKUTATUTAKO
BERTSOLARIA

ZERTAN DA KLIMA
ALDAKETAREN AURKAKO
BORROKA PARISKO
GAILURRAREN OSTEAN?



BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA
FEMINISMOA ETA EUSKALGINTZA: BI BORROKEN
ARTEKO HURBILKETA XUMEA BLA BLA BLA LA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BL
ALDAKETA NAFARROAN BLA BLA BLA BAL
BLA-BLA BLA BLA BL-BL-BL-BLAAA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA **KLIMA ALDAKETA** A
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
GARAI KONPLIKATUAK EUROPAKO EZKERRENTZAT
BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
LOMCE, HEZKUNTZA HANKAZ GORA BLA BLA BLA
BLABLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BBLA BLA
BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA LA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA

HAUTATZEN DAKITENENTZAT

9,95€

Eskura ezazu!

943 371545

www.argia.eus/denda - denda@argia.eus

**ARGIaren asteroko harpidedunak
doan jasoko du postaz**



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Baleren Bakaikoa Azurmendi
- 20 Eneko Olasagasti
- 21 Fermin Erbiti
Itxaro Borda



Klima aldaketa ikertzen duen BC3ko zentroko zuzendaria da Mari Jose Sanz urtarritetik. Datozen erronkez solastu gara harekin. (ARGAZKIA: IÑIGO AZKONA)

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
NICOLAS LEPORT-LETEXIER
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO IRUDIA: AINARA AZPIAZU 'AXPI'

SAKONEAN

- 14 | Alfonso Zapico, komikilaria: "Bigarren eskuko arropa bezalakoa naiz" / Sustrai Colina
- 22 | Ingeleseaz ikasteko programa Nafarroan: UPNren golik borobilena / Onintza Irureta Azkune
- 28 | Mari Jose Sanz, BC3ko zuzendaria. Zertan da klima aldaketaren aurkako borroka Paris ostein? / Unai Brea
- 31 | Gorputz multikulturalak. Odolaren tenperatura nortasunen ardatz / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 32 | Etorkizuneko pentsio sistemaz bost galdera (eta erantzun) / Urko Apaolaza Avila
- 34 | Katu Arkonada: "Kudeaketa ez da sexia, erakargarriago zaigu erresistentziaren kultura" / Joanes Etxebarria
- 41 | Zergatik ez euskaraz lo orduak kenduko dizkizun telesaila? / Lander Arretxea
- 44 | Plazida Otaño, etxea plaza zeneko bertsolaria / Estitxu Eizagirre Kerejeta

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko parteidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Ane Urkola, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Iker Oñate, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
HARPIDETZA:
Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

40 urteko erresistentzia basamortuan

Otsailaren 27an 40 urte bete dira Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zutenetik; Espainiako armadak Mendebaldeko Sahara abandonatu eta lurraldea Marokoren menpe utzi zuenetik, alegia. Marokok ezarritako gerra eta errepresioa orokorrari Fronte Polisarioak eraikitako erresistentzia eremua izan da. Lau hamarkadaren ostean, ordea, gatazkak ez du konponbiderako zantzurik erakusten. 80 herrialdek baino gehiagok SEADen gobernu formalki onartzen badute ere, Nazio Batuen Erakundeak ostrukarena egiten jarraitzen du nazioarteko legedia sistematikoki urratzen duen Marokoren okupazioaren aurrean.

Argazkia: Javi Julio (Nervio Photo)



“Diskurtso propioa duten talde gazteak behar dira; horien falta sumatzen dut”

Fermin Muguruza
(Berria egunkarian)

argia.eus/multimedia



Gazteak, bizia eta airea

Nekazaritzak ezinbestekoak ditu gazteak, etorkizuna bermatzeko. Etengabeko aldaketa da nekazaritza eta bizi eta aire berriak beharrezkoak ditu. EHNE Bizkaia eta Bizi Lur elkarten lana.



Gaztetxe eta gazte asanbladen topaketa

Alternatibez eta kolektiboen funtzionamenduaz aritu dira autogestio proiektuetan dabiltzan 250 gaztek.



ERREKA.ORG

D ereduko lerroak Tafallan, Lodosan eta Caparroso-Azkoienan

Euskalerria Irratia

@fm914

Euskararen Legearen arabera eremu ez euskaldunetan 2016-2017 ikasturterako izena D ereduan eman duten 77 haurretatik 40 hiru urtekoak dira, eta 37 beste mailetakoak. Horiez gain, eremu ez euskalduneko beste 52 haur eremu mistoan aurrematrikulatu dituzte, handik gertu bizi direla eta, zehazki Lizarran, Garesen, eta Iruñerrian.

D eredu publikoaren sorrerak ez du matrikula beherakadarik eragin legearen arabera eremu ez euskalduneko ikastola itunpekoetan: 73 aurrematrikulazio jaso dituzte orotara. Datua azken urteotako oso antzekoa da. Horretaz gain, eremu ez euskalduneko 23 haurrek eremu mistoko ikastoletan eman dute izena.

Beraz, bi sareak aintzat hartuz, eremu ez euskaldunetan 188 haur aurrematrikulatu dituzte D ereduan. Iaz 126 izan ziren.

Hezkuntza kontseilari Jose Luis Mendozak nabarmendu duenez, “hezkuntza derrigorrezkoa bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea Nafarroa osoan bermatzen den lehen aldia da”. Mendozak azaldu du dagoeneko harremanetan jarri direla D eredua zabalduko duten ikastetxeetako zuzendaritzarekin eta familiei beharrezkoa den informazio guztia emanen dietela.

Nafarroa osoan, %29,49 D ereduan

2013an jaiotako 6.075 haurretatik 5.866 aurrematrikulatu dituzte. Ikasleen %29,49 euskarazko D eredura joanen dira; eta %70,51 G eta A ereduera.

“Zer da ba, nik deklaratzera joan behar izatea baino fundamentalismo argiagorik?”

ABEL AZCONA, ARTISTA


Ostia erabiliz, Abel Azconak “Pederastia” hitza osatu zuen Iruñean, eta “kristauak iraindu” izana leporatuta epailearen aurrean deklaratu du orain. “Epailea eta prozesu juridikoa errespetatzen ditut, baina performancearen jarraipena dira. Fundamentalismo erlijiosoa salatzen duen pieza bat egin dut, eta zer da, bada, 2.000 pertsona eraikinen aurrean erreztatzen aritzea, edota nik deklaratzera joan behar izatea baino fundamentalismo argiagorik?”. **2016-02-25**



Amianto edo asbestoa azken mende honetan masiboki erabili izan da industrian eta beste hamaika ze-reginetarako mundu osoan. Minbizi sortzailea zela jakin arren herrialde askotan erabiltzen segitu zuten urte luzez. Datozen bi hamarkadetan, amiantoak sorturiko gaixotasunengatik (mesotelioma, biriketako minbizia eta asbestosia) hildakoen kopurua gailurrera iritsiko dela espero da.

Amiantoaren genozidioa

40 urte*



* tumoreak, amiantoarekiko esposizioa izan eta agertzeko behar duen denbora.

1.538.457

lagun hilko dira munduan,
amiantoak sorturiko
mesoteliomaren ondorioz.

3,8

biriketako minbizi eta
asbestosi heriotza egon
daitezke mesotelioma
bakoitzeko.

Ondorioz...

5.223.071

baina...

...zenbait ikerlarik uste dute
7,8 dela kopuru erreala, eta
horren arabera:

10.000.000

lagun hil ditzake amiantoak.

Amianto Araba, Bizkai eta Gipuzkoan

Urteak	Kasuak	%71 laneko esposizioagatik	%11 senideak. Hauetatik gehienak senarraren laneko arropak garbitzen zituzten emakumeak.
1999-2003	156		
2004-2008	250		
2009-2013	373	%18 ingurumenari loturiko esposizioagatik	
2014-2018	579		
2019-2023	867		

Iturria: Eusko Legebiltzarra

1

Amiantoz kutsatutako arropak
garbitzen zituzten emakumeen
heriotzagatik, **zigor-epai bakarra**
egon da Euskal Herrian.

Enpresa derrigortuta zegoen arropa zikinak
beharrezko neurriak hartuta garbitzera. Baina
langileen emazteek garbitzen zituzten etxean, as-
besto hautsa arnastuz.

NAFARROAN
2.821

pertsonari osasun jarraipena
egiten ari zaie, iraganean amian-
toarekin kontaktua izan zute-
lako.



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Zubietan bilduta milaka lagunek “Errausketarik ez!” egin dute aldarri

Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Milaka herritarrek beren protesta azaldu zuten igandean, otsailak 28, Zubietan Gipuzkoako Foru Aldundiak eraiki nahi duen erraustegiaren kontra, lehenbizi “zero gunea” bertaraino bide lokaztuetatik iritsita, eta Zubietako plazan bertan gero. Bezperako eguraldi oso txarrrak eragindako beldurra gaindituta, iragarri bezala Hernani eta Añorgatik abiatutako zutabeak Lasarte-Orian elkartu zitzaizkien herri honetakoei elkarrekin Zubietaraino joaz.

Hemen Zubietako jendearekin bilduta abiatu ziren Letabide gainera. Bertan bat egin zuten Usurbildik eta Aiztondoko Zizurkildik zetozenekin. 1.200-1.500 arteko kopuruan elkartu ziren. Bide lokaztuetan barrera bertaraino iritsitakoek, gain haietatik ikusi ahal izan zituzten Real Sociedaden futbol zelaian atzean egin diren lur urratze izugarriak, espetzeaz gain Gipuzkoako industriagunerik handiena edukiko dituztenak. Iku- si ahal izan zituzten ere Ertzaintzaren bi furgoneta eta lau patruila errauste plantarako sarbidea edonori galarazten GHK enpresa publikoaren lur eremueta-

ra. Antza denez aurreko asteetan GHK ez zuen ingurua zorrotasun berarekin zaindu, Letabideko lepotik garbi ikusten baitziren bertaraino axolakaberen batzuek eramandako zabor nahasiak pila handiak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014an lurperatu zuen eta 2016an berpiztu nahi duen errauste plantaren zulo erraldoia ikusi ostean, Zubietako kaxkora itzuli ziren ibiltariak eta hemen jende gehiago zeukaten zain plazan azken ekitaldirako. Estitxu Eizagirre kazetari eta bertsolariak irakurri zuen EAM Errausketaren Aurrakako Mugimenduaren *Buru eta Bihotzaren Aldarria* manifestua. Eta Teresa Lopez de Munainek irakurri zuen EAMen azken mezu laburra: “Justiziatik eta arduragatik: errausketarik ez, birziklatzea bai”.

EAMeko arduradunek bukaera azaldu zuten beren poza Zubietara hain kopuru nabarmenean hurbildutako herritarrek erakutsi dutelako errausketaren aurrakako mugimendua berriro indarrez dagoela. Eta ondoko asteetarako bi zita aipatu zituzten: martxoaren 12an Andoainen manifestazioa eta maiatzaren 29rako beste ekitaldi berezi bat, zeinaren xehetasunak laster jakinaraziko diren.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gasteiz, berrogei urteko inpunitatea



Juan Mari Arregi

Aste honetan, martxoaren 3an, berrogei urte dira polizia frankistak Gasteizko bost langile tiroz sarraskitu zituela. Eliza batean asanblada egiten ari ziren, aldarrikapen sozial eta laboralak zituen greba orokorraren baitan. Haien izenak –beste edozeinenak ere izan zitezkeen– ezagunak zaizkigu jadanik: Pedro María Martínez Ocio, Francisco Aznar, Romualdo Barroso, José Castillo eta Bienvenido Perea. Asko eta asko balaz zauritu ziren. 1976tik hona, Espainiako Estatuak krimen frankista haien arduradunei eskainitako berrogei urteko inpunitatea dago, jadanik hilda dagoen Manuel Fraga orduko Gobernazio ministroari, eta Martin Villa orduko harreman sindikaletarako ministro zenari.

Espainiako Estatuaren jarreraren aurrean, Europar Parlamentuak egunotan Martxoak 3 elkartearen salaketa entzungo du. Ikerketa bat ireki eta Madrili justizia, egia eta ordaina eskatu diezaiola nahi dute.

1976ko greba hartatik bi irakasgai nabarmendu beharko genituzke. Lehena: greba hura aurrera atera zen langileen eta herriaren artean sorturiko batasunari esker, bereziki emakumeei esker, ekarpen handia egin baitzuten mobilizazioa sostengatu eta garatzeko. Bigarrena: greba orokorra mantendu zen enpresa ezberdinen arteko langileen elkarlanari esker, ez sindikatuen bidez, asanbladan aukuraturiko langileez osatu zen koordinadoraren bidez baizik. Asanblada orokorra, ohikoan elizan egiten zena, greba aurrera eramateko erabakigunea izaten zen. Auto-antolaketa hori ez zitzaion gustatzen ez patronalari ezta Gobernuari ere. Haiek nahiago zuten sindikatuekin negoziatu. Eta zailantzarik gabe, hori izan zen arrazoi nagusia asanbladari eraso egin eta tiroka desegiteko, bost hildako eraginez. Horixe izan zen Gasteiz 1976.



GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

Errefuxiatuentzat "igarobide ziurak" aldarrikatu dituzte

EUROPA. Iheslari eta etorkinen eskubideen aldeko martxak antolatu zituzten otsailaren 27an, Europako 100 bat hiritan, tartean Euskal Herriko hiriburuetan. "Mugen, arrazakeriaren eta faxismoaren kontrako konpromisoa" adierazteko eta tokian tokiko agintariak eta Europa mailakoak presionatzeko helburua izan dute mobilizazioek. Bestalde, errefuxiatuak aterpetzeko erabakia hartu du Hendaiaiko Herriko Etxeak; etxebizitza huts bat prestatu du asmo horrekin. Oraindik herrira iritsiko diren errefuxiatu kopurua eta heltze data ez dituzte zehaztu.

123 kaleratze Landabengo TRW lantokian

Euskalerrria Irratia

@fm914

Iruñeko planta mantentzearen truke zuzendaritzak azken proposamenen 123 kaleratze jaso zituen eta langileek onartu egin dute. Lantokiaren etorkizuna mantentzeko "ezinbestekoak" dira kaleratzeak, multinazionalaren aburuz

Bototan

Aldeko 327 boto jaso ditu zuzendaritzaren proposamenak, kontrako 223 eta hamar txuri. Martxoa bukatu aurretik egingo dira kaleratzeak: lan egindako urte bakoitzeko 38 eguneko kalte-ordaina izanen dute, eta gehienez 24 hileroko ordaina.

Gelditzen direnak

Fabrikan gelditzen diren langileen baldintzak gogortuko dituela iragarri du ZF TRWk: lehenengo urteetan urteko 24 ordu gehiago egin beharko dute lan, eta azken urtean 40 ordu handituko da lanaldia. Soldata ere izoztuko diete.

"Egunik zailena"

"Balorazioa txarra da, zuzendaritzaren proposamena oso txarra delako. Bilera izan da gogoratzen dudana egunik zailena, baina unerik krudelena kaleratzeak gauzatzeko unea izango da", adierazi du Pedro Mari Larrea LAB sindikatuko ordezkariak.

EKONOMIA



%93,6

2015ean Hego Euskal Herrian sinaturiko kontratuen %93,6 aldi baterakoak izan ziren, LABek emandako datuen arabera. Kontratu horietatik ia erdiek hilabete baino gutxiago iraun zuten.

%17,73

2010-2014 bitartean gehien irabazten dutenen soldata %2,69 handitu da eta gutxien irabazten dutenena %17,73 gutxitu.



FORUM TO FIGHT JARDUNALDIK

Forum to Fight ikasle topaketak egin dituzte Laudion. Europako ikasleen ahotsak batu, eta Boloniaren eta bestelako erreformen aurka borroka artikulatzeko baliatu dituzte jardunaldiak, hezkuntza publiko eta duinaren alde.



ENDESA ETA IBERDROLAREKIN KONTRATUA ETETEKO PREST

24 erakundek eta bederatzi norbanakok adierazi dutenez, Garoñako zentral nuklearra berriz martxan hasiko balitz Iberdrola eta Endesarekiko kontratuak etengo lituzkete.



KARTELAK DEBEKATUTA

Eremu publikoan jartzen diren kartel eta pankartak kentzeko erabakia hartu du Zumaiaiko Udalak; pintaden aurkako neurriak ere aurreikusten ditu. "Herria txukun mantentzea, ingurumena zaintzea eta guztiena dena errespetatua izatea", emandako argudioak.

Egin irribarre bai, baduzu erronkarik eta



Xabier Letona

@xletona

ARNALDO OTEGI 1997an hasi zen eza-gun egiten iritzi publikoaren aurrean, Baltasar Garzonek HBko Mahai Nazionalaren espetxeratzea agindu ondoren. Aspaldi ari zen ezker abertzalearen barruan -ETatik hasita gainera-, baina kanpora begira kuku egin gabe.

Itzela izan zen jauzia eta ezker abertzaleak lider aparta zuela deskubritu zuen. Bere esparru politikotik harago ere mirespena eta errespetua bereganatu zituen euskal gizartean. Ideiak argi zituen, indarra erakusten zuen, jantzia, komunikatzaile bikaina, didaktikoa, interesgarria... Egungo gizartean lider handi bati eskatzen zaion guztia zuen. Gehi espetxea, mugimendu iraultzaile batean giltzarri barne gidaritzari begira.

**Erakunde armatuak
arrakasta militar apur
bat gehiago erakutsi
izan balu, gaitza da
irudikatzea norabide
aldaketa hori zatiketa
barik amaituko zenik**

Hori guztia eta bikoitza izanda ere, berak bakarrik ezingo zukeen ETaren borroka armatua geldiarazi. Ez dago filmeek eta hedabideek marrazten duten halako liderrik; errealitate sozial, ekonomiko eta politikoa hori baino askoz aberatsagoa da zorionez. Armen isiltzeko ziorik esanguratsuen ETaren jar-duera bera izan zen, bere ahultzea eta

berarekin ezker abertzale osoaren gain-behera. Erakunde armatuak arrakasta militar apur bat gehiago erakutsi izan balu, gaitza da irudikatzea norabide aldaketa hori zatiketa barik amaituko zenik. Hala ere, esan liteke Otegi giltzarri izan zela ezker abertzalearen estrategia aldaketaren bideratzean.

Hain giltzarri, non Estatuak espetxeratu egin zituen bera eta Bateraguneko besteak, ezker abertzalearen mugimendu berriak baldintzatzeko. Hain giltzarri non, une gaitza eta berezia bizi duen ezker abertzalearen baitan, pertsona bati gutxitan eman zaion halako lider izaera. Hain giltzarri, non preso baten kaleratzeari ezker abertzaleak inoiz eman dion tratamendu mediatiko sendoenaren aurrean gauden. "Zorionak ala doluminak?" esaten zaio sarri aurrera begira erronka gaitzak bizkarreratzen dituenari. Bizkar-zorroa borondatez altxatzen bada beti dira zorionak, baina ez da makala Otegi oraingoan duen erantzukizuna. Tentuz ibili beharko du, lagun eta miresleak beste baitira haren hanka sartzea eta porrotaren zain begira daudenak.

PRESOAK. Tripako mina eman arren, ona da Baltasar Garzoni entzutea Otegi hobeto dela kalean barruan baino; borrokoak halakorik esan beharrak asko adierazten du. Justizia eta txiklearen arteko parekotasunaren adierazle bat gehiago ere bada, eta injustizia itzelaren oinarria azaleratzen du. Beste hainbesterekin egin den injustizia bera: Bateraguneko besteak, 18/98koak, Amnistiaren Aldeko Batzordeetako espetxeratuak, urteak espetxean eman dituzten Segiko gazteak, *Egunkariakoak*, Batasunakoak, gero absolutuak edo zigortuak izan diren *herrikoetakoak*, edo akordioz libre diren *Segurakoak*... guz-

tiak dira espainiar justizia ezaren agerle. *Dena da ETaren* biktima. Espainiako Estatuaren biktima. Uneren batean aitortu beharko zaie biktima izaera hori.


Badu kutsu zaharra honek guztiak, ezin uka: "Oraindik horrekin ari zarete?". Presoen arazoa esaldi horren ahanzturan itotzea nahiko lukete askok, baina ez da posible, besteak beste euskal gizarteko dozenaka milaka pertsonak ezin duelako errealitate hori ahaztu. Ezin ahaztu, ezin gainditu. Hor da drama. Eta seguru dena, zirrikituaren bila jarraituko du euskal gizartean oraindik indartsua den gizarte esparru horrek.

NOLA ASMATU? Hor da galdera eta horra lehia, ezker abertzalearen baitan ere, amnistiaren inguruko eztabaidak agerian utzi duen lege. Euskal gizartearen gehiengo konbentzitu eta aktibatu behar bada presoen errealitate-ra aldaketak ekartzeko, hori gaur egun bakarrik haien eskubideen inguruan egituratu liteke. Beste gauza bat da ezker abertzaleak presoen errealitateari bestelako diskurtso politikorik eta sotsengurik eman behar dion, amnistiaren diskurtsotik eskatzen den bezala. Eta beste bat, hori nola egin, bata zein beste bateragarriak izan daitezen eta elkarri enbarazurik egin ez diezaioten.

Euskal gizartearen beste bultzada bat, Espainiako Gobernuaren beste jarrera bat eta, nahi diren marra gorriekin, baina presoen beraiekin mugimendu gehiago ere beharko dira espetxeetako gurpilak beste martxa bat har dezan.

Arnaldo Otegi kaleratu baino bi egun lehenago eta 19 urte preso egin ondoren atera zen aske Joseba Urrosolo Sistiaga, preso historikoa eta *Langraitz Bideko* erreferentzia nagusietakoa. Ezin da egoeren mimetismo egin, baina ezta abstrakzio ere. ■

<HIZKUNTZA-ereduen **ELKARBIZITZA** Ren alde
 EGITEN DUGU IKASTETXEETAN, eskola-hizkuntzen gainetik>
 MARISSA DE SIMÓN, espainiar irakasle eta I-Eko parlamentaria



CK

Zertarako erosi armarik modernoena ez bada gerran erabiltzeko?



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Ekialde Hurbileko estatuek %61 gehiago gastatu dute armak erosten 2011-2015 urte artean aurreko bost urteetan baino eta Saudi Arabia da munduan gehien erosi duena, inportazioak %275 handituz. Esportazioetan AEB txapeldun, Errusia eta Txinaren atzetik Frantzia laugarren eta zazpigarren Espainia.



Gerrarako armen nazioarteko saleros- tea %14 handitu da 2011-2015 epean aurreko bost urteekin alderatuta, SIPRI Nazioarteko Bakerako Ikerketen Estokolmoko Institutuak ezagutarazi berri duenez *“Trends in International Arms Transfers, 2015”* dossierrean. Hain larria ez dirudien %14 hori non zertan mami- tzen den ikusita ohartzen da irakurlea Lurra planeta ez dagoela bake lasai ba- ten bezperan.

SIPRIk badauka data base bat 1950. urtetik elikatua, bai estatuek eta bai estatutzat onartu gabeko talde nagusiek mundu osoan saltzen eta erosten dituzten gerrarako arma handien in- formazioak bilduz. Institutuak berak aldarrikatzen duenez, “edonoren eskue- ran jarritako informazio multzo han- di honek laguntzen du ulertzen armen joan-etorriok munduko bake, egonkor- tasun eta gatazka bortitzetan daukaten eragina”.

Ekialde Hurbilean gertatzen ari dena, eta aurrerantzean tamalez gertatuko dena, gastu militarrek kontabilizatu- z ere uler daiteke. Denetara %61 hazi zen eskualde horretako estatuen arma eros- keta, baina horien artean Saudi Arabia da mundu osoan arma gehien inportatu duena, aurrean India handia baizik ez daukala. Munduko arma handien inpor- tazio guztien %7 berak erosi zuen, Txi- nak berak baino askoz gehiago.

Emirerri Arabiar Batuen ere estatu txikia izan arren inportazioetan oso au- rrean dabil: munduko erosketen %4,6

bereak ziren, ia Txina erraldoiarenak adina. Qatarrek %279 gehiago erosi du. Egiptok ere asko handitu ditu erosketak bost urteotan. Aldiz, nazioarteko enbar- goa dela eta, Iranek oso gutxi inportatu ahal izan du, nahiz eta honek ez duen esan nahi gastu militar txikiak izan di- tuenik, dauzkan arma gehienak berak etxean ekoitzi behar izan dituela baizik.

SIPRIko ikerketa buruetako bat den Pieter Wezemanek adierazi duenez, Gol- koko estatu arabiarrek ondoko urteetan ere segituko dute armak kopuru handi- tan erosten, nahiz eta beren finantzetan estuago ibili petrolioak daukan prezio merkeagatik: kontratu handiak itxi zi- tuzten petrolio garestiaren garaietan. Erosi duten arma pila zuzenean dago lotuta orain Yemenen eta beste lekuetan Saudi Arabiak eta bere aliatuek gerra sustatzearekin.

Afrikak eta Asiak ere asko handitu dituzten bezala iskulu handien inporta- zioak, Ameriketako egoera nahasiagoa da honetan. AEBk segitu du mundu- ko arma inportatzaile handiena izaten (esportatzaile handiena ere baden mo- duan), baina aldi berean Hego Amerika- koek tira dute beheraka erosketetan.

Estatu askok gutxitu dituzte inporta- zioak, baina ez denek. Krisi ekonomiko larrian murgildu den Venezuelak azken bost urteetan segitu du kanpotik arma asko hartzen eta pagatzen, kontratuak aurretik sinatuta zeuzkalako. Aldiz, ez bide dute joera aldatzeko asmorik ez Mexikok, zeinak %331 igo zituen arma

erosketak –nagusiki narkotrafikoaren gerra famatuaren aitzakian– eta Bra- silek: 2015ean bertan enkargatu diz- kio 36 gudu hegazkin Suediari eta bost itsaspeko Frantziari.

Ekialde Hurbilarekin batera Asia da munduko arma erosle nagusia eta ho- nen barruan India txapeldun. Bizilagun dituen Pakistan eta Txinak erositako ar- men hiru halako erosi ditu Indiak. Txina pasatu da inportatzaile izatetik esporta- tzaile handietarik izatera. Inguru hartan Vietnam da beste adibide deigarrieta- ko bat: %699 handitu zituen erosketak bost urtetan.

Si vis bellum, para bellum

Europak batatz beste ia erdira jaitsi ditu arma inportazioak azken bost urteotan, nahiz eta zenbait herrialde justu orain- txe hasi diren enkargu handiak egiten, nagusiki Errusiarekin muga egiten du- tenek, Ukrainako krisiaz geroztik.

Europarren artean SIPRIk nabarmen- du du Greziaren kasua: gastua murriztu du, baina 2000. urtean egindako enkargu- ak erosi eta pagatzen segitu behar izan du, krisi ekonomikorik lantzena- ren erdian. Ez da ahaztu behar Turkia daukala auzoan eta honek sei itsaspeko erosi zituen Greziak beste hainbeste enkargatu zizkiola saltzaile berari, esan nahi baita... kanpo zorrarekin ito nahi duen Alemaniari.

SIPRIren zortzi orrialdeko dossier mamitsuan gerrarako armen erosleen zerrenda bezain adierazgarria da sal-



BAE Systems konpainia britainiarrak zabaldutako argazkian, berak ekoiztutako Tiphon gudu hegazkin bat Dubaiko (Arabiar Emirerri Batuak) Jumeirah Palm uharte txundigarriaren gainean erakustaldia egiten. BAE Systems da munduko industria militar handienetan bigarrena. Bederatzi milioi biztanle baizik ez izan arren, Arabiar Emirerri Batuek erosten dituzte munduko arma inportazio guztien %4,6, horietatik bi heren Amerikako Estatu Batuei.

tzaileena. Denetan nagusi AEB, eta gainera merkatu kuota munduko salmenta guztien %29tik %33ra zabaldua. Bezero onenak ditu Saudi Arabia, Arabiar Emirerri Batuak eta Turkia. Munduko 99 herrialderi saltzen die eta hegazkinen arloan hornitzaile nagusia da.

Bigarren postuan, Errusiak merkatuaren laurdena dauka bere. Bezero handienak India, Txina eta Vietnam. Errusiarrek ere ugaritu dituzte salmentak bost urteko epean, baina 2014tik aurrera asko murriztu, ziurrenik Ukrainako gerraren osteko enbargoagatik.

Esportatzaileetan hirugarrena Txina bera da, baina askoz kuota txikiagoarekin, %6 eskas, nahiz eta ia bikoiztu egin duen kuota. Erosle onenak Asian dauka: Pakistan, Bangladesh eta Myanmar.

Frantzia laugarren, merkatuaren %5,6arekin. Maroko, Txina eta Egipto

ditu erosle onenak. Alemaniak merkatuaren %4,7rekin hartzaile fidelenak ditu AEB, Israel eta Grezia. Britainia Handiak negozio onenak egiten ditu Saudi Arabia, India eta Indonesiarekin.

Zazpigarren lekuan Espainia, kuota-ren %3,5ekin baina salmenta %55an handituta, Alemania eta Frantziaren alderantziz. Espainiak armak saltzen dizkie batez ere Australiari, Saudi Arabiari eta Turkiari.

Saltzaileen eta erosleen zerrendak bere horretan asko errazten du munduko geopolitikaren ulertzea. Esaterako, Siriako krisian Europak eta AEBek zer nolako arazoak dauzkaten Turkia eta Saudi Arabia haien baketze interesetara erakartzeko. Ez zebilen gaizki "bezeroak beti arrazoi" esan zuena.

SIPRIk bere txostenean garrantzia berezia eman die nazioarteko armen

komertzioaren bi atali. Airezko erasoe-tarako hegazkin militar sofistikatuaren arloan 555 saldu dira bost urteotan, 209 Errusiak, AEBek 175, Txinak 74... Piloturik gabeko *droneen* arloan ere hasi dira *import-export* operazioak, baina hegazkinen aldean gutxi dira oraino.

Itsaspekoetan gertatu da aldaketa handia urteotan. AEBek eta Britainia Handiak urpeko nuklearrak baizik ez dituzte ekoizten eta horiek ez dauzkate salgai. Azken bost urteotan 15 itsaspeko saldu dira baina datozen urteetarako 48 daude enkargaturik. Kolpe handienak: Alemaniak salduko dizkie 6 Turkiari, 5 Hego Koreari, 4 Egiptori. Frantziak 6 Indiari, 5 Brasili. Txinak 8 Pakistani, 2 Bangladeshi. Hain beste arma jira eta bira, sutu behar han ez bada hemen. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Alfonso Zapico, komikilaria

«Bigarren eskuko arropa bezalakoa naiz»

Hitza eta marrazkia. Marrazkia eta hitza. Hitzak marraztu eta marrazkiak esan. Ahotik lapitza aterata eta mingaina eskuan hartu. *“Santa Barbara bendita, tralaralaralalai...”*



Sustrai Colina

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zure haurtzaroa marraztu beharko bazenu...

Grisa litzateke. Asturiaseko meatzaldeko herrixka bateko haurtzaroa industrialia. Desagertu den mundu baten haurtzaroa da nirea. Ikatx meatzeak, sindikatuak, langileen ezul arteko osatu giroa... Mundu industrialaren eta herri giroaren arteko bizimodu batetik nator, geografikoki zein sozialki bakar-tutako inguru batetik. 1990eko hamarkada hasieran, ekonomikoki larri genbiltzalako, etxetik telebista kendu behar izan zuten gurasoek. Liburuetan topatu nuen salbazioa. Gustatzen ez zitzaidan mundu hartatik ihes egiten lagundu zidaten, beste mundu batzuk deskubritzen eta jakin-mina garatzen.

Jakin-minezko mundu horiek marrazten zenituen?

Asterixen komikiak kopiatzen nituen, ikastetxeko aldizkariak ilustratu, adiskideen eta irakasleen karikaturak egin... Orduan ez neukan jendearekin harremanetarako gaitasunik. Kamutsa bezain motza nuen hitza. Marrazkiz komunikatzen nintzen. Horregatik segitu dut marrazten. Hitzaren dohaina garatu ahala marrazkia alferrikakoa bihurtzen zaio jendeari. Nik hitzez defenditzen ikasi nuenerako, berandu zen marrazkiari

uko egiteko, seigarren atzamarra nuen lapitza. Paradoxikoa da irudiaren jendarterako prestatzen gaituen heziketan marrazteko gaitasuna bide ertzean uztea.

“Argala, lotsatia, probintzianoa eta sozialdemokrata” omen zara.

Zer diote guri buruz gure curriculumek? Ezer gutxi. Ez dute azaltzen nondik gaitoen, zergatik garen garen bezalakoa, zergatik tentatzen gaituen adierazpide batek besteak baino gehiago, zergatik egiten dugun egiten duguna... Horregatik interesatzen zait nire burua definitzea. Lau izenondo horiek askoz hobeki aurkezten naute nire titulu unibertsitarioek baino. Madrilen edo Bartzelonan hazi eta hezi banintz beste marrazkilari bat nintzatekeen. Asturiasen ez neukan *feed-back*ik, ez nintzen inorekin konektatzeko gai. Nire eraginek ez dute zerikusirik komikiarekin. Marrazkilari zein ilustratzaileen mundu suharretik aparte ibili naiz Anguleman lur hartu arte. Horrela egin ditut egin ditudan liburua. Ez da kasualitatea nire lehenbiziko obrak Krimean edo Palestinan kokatzea, ongi ezagutzen ez nituen inguruetan. 2.000 biztanleko herrixka ito batean bizita mundua eskatzen zidan gorputzak. Maletak Anguleman pausa-

tzean, aldiz, Asturiaseko kontuak hasi naiz marrazten. Denak du zentzua autoren baten ibilbidean. Ezinbestekoa da autoren bizimodua ezagutzea bere lana ulertzeko. Horregatik, askotan, autoren bizimodua autoren obra baino gehiago interesatzen zait.

Nola definituko zenuke zure marrazkera?

Aski askea da. Zikin samarra. Formei, perspektibei eta pertsonaiei dagokienez gutxi landua dirudi, baina detaile askokoa da. Izugarri saiatzen naiz ingurua, eszenatokia, erreala izan dadin. Pertsonaiei benetako itxura ematen tematzen naiz. Ezinbestekoa zait detaileen egiazkotasuna. Marrazkiak askatzen nau eta dokumentazioak lotu. Borroka horretan, ez da samurra hitzen eta irudiaren arteko oreka topatzea. *Dublindarra*, esaterako, hitzaren aldera desorekatzen zitzaidan. *La Balada del Norterekin* testua kentzen egoskortu naiz, nire intentzioak filtratu eta ahal bezain zehatz bideratzen. Ez dago gida-libururik. Askoren urrezko araua da testuan marrazkian ageri dena ez errepikatzea, baina batzuetan, horixe interesatzen zait niri. Bakoitzak aurkitu behar du bere estiloa, bere ahotsa, bere tonua. Liburuak irakurlea harrapatzen badu funtzionatzen du, bestela ez. Ez dago besterik.



Alfonso Zapico

1981, Blimea (Asturias)

Komikilari eta ilustratzailea.
La guerre du professeur
Bertenev, *Café Budapest*,
Dublinés, *La Ruta Joyce* eta
La Balada del Norte dira
bere lanik esanguratsuenak.
Euskarara itzuli berri duten
Dublinés (*Dublindarra*,
Astiberri) lanari esker,
Espainiako Sari Nazionala
irabazi zuen 2012an.
Anguleman bizi da egun.

Zuk, orain arte, testuinguru historikoetan topatu duzu zure ahotsa.


Historiak errealismoz janzten du gaur-kotasuna. *La guerre du Professeur Bertenev*-en gerraz ari naiz, nazionalitateaz, garai gatazkatsuetako laguntasunaz... *Café Budapest*-en, identitateaz, erlijioaz, gatazketako bandoez... Oso gai unibertsalak dira, modaz pasatzen ez direnak. Historiatik eta literaturatik jasotako hausnarketez beteta daude nire lanak. Historiaren tarte jakin batean munduko toki zehatz batean kokatu eta gaur egun go gaiez gogoetatzen saiatzen naiz. Eszenatoki erreal batean fikziozko pertsonaiak sortzen ditut horretarako. Ezingo nuke irakurlerik kateatu Krimeako gerra bere horretan kontatzen duen liburu batekin. Ez nuke aurrez beste inork esan ez duen deus interesgarrikerik esango. Memoria ez da iragana kontatzea bakarrik, oraina ulertzea ere bada.

Memoriak meatzeen antza duela idatziko luke poetak.

Meatzeen memoriatik eta memoriaren meatzetik du *La Balada del Norte*-k. Asturiasen, 1934. urtea iradoki eta dena da oso mitikoa, erromantikoa, baina inork ez daki zehazki zer gertatu zen. Gertatu ez zirenak asmatzen dituzte batzuek, komeni zaiena gogoratzen dute besteek, eta oharkabea, duintasun guztia galdurik desagertzearen den bizimoduari buruz mintzatzen gara. Injustua da ahanztura. Asturiaseko meatzalde grisa ez dator bat saldu nahi den Asturias turistiko, bukoliko eta gastronomikoarekin. Munduko gaitz guztiak orduko borroka sindikalei, greba egunetako errepide mozketei eta meatzarien eztul-karkaxei egotzi zaizkie. Ez dago mundu horren kontzientziarik. Lanpas azpian gordetzen den hautsa gara, industria eta ikatzagatik sakrifikatutako lurraldea, sozialki, ekologikoki zein intimoki arras degradatua. Bizimodua ez da albiste-gietatik desagertzean bukatzen. Jende batek hantxe segitzen du, beste batzuek alde egin behar izan dute, baina denak daude gaizki. Asturias oso injustua izan da bere historiarekin.

Memoria eta politika ez nahasteko errepikatzen dute agintariak.

Niretzat dena da politikoa. Nire liburuek ez dute elkarren antzik baina denek dute politikotik. Nire obrak galderetatik sorturiko lanak dira, eta edozein galde-



Alfonso Zapicoren autoerretatura.
Goian bere komikietako bi marrazki.

raren atzean derrigorrez dago politika. Koherentzia politikoa modan ez egon arren, saiatzen naiz horri eusten. Politika ez da alderdien aulki dantza, zintzotasunetik abiatzen den oro baizik. Nire buruarekin zintzoa izatea da irakurleekin zintzoa izateko modu bakarra. Autore batek bere burua engainatzen badu, bere irakurleak engainatzen ditu. Zintzotasunaren faltan, alferrik dira munduko marrazki ederrenak, nire begiek ez dituzte edertzat joko. Zintzotasuna, zintzotasuna eta zintzotasuna. Ez dago hori baino politikoagorik.

"Je suis Charlie" egin zuen oihu kristo guztiak.

Hastapenean mundu guztia zen *Charlie*, elkartasun erreakzio automatikoa jarri zen martxan, mundu mailako agintariak buru zituen kontzentrazioa egin zen Parisen, estatuaren ondare nazionala izendatu zuten *Charlie Hebdo*... baina hilabeteak pasa ahala, oasirik gabeko basamortuan galduta eta bakarrik sentitu dira aldizkariako marrazkilariak. Oso koherenteak izan dira euren izaerarekin. Inoiz gustu txarrekoa izan daitekeen umore gordin eta probokatzailea egiten segitu dute. Presioa jasanezin zutenak bidean geratu dira. Azkenerako, ordea, inor ez da *Charlie Hebdo*z gogoratzen. Geroz eta jende gehiagori entzuten diot ixten bukatuko dutela. *Charlie Hebdo* lan egingo banu, egunero izango nuke autozentsuraren hatsa kokotean. Noraino heldu, noiz moztu... Ni ez naiz edozertaz barre egiteko gai. Nire buruari mugak jartzen dizkiot. Nire liburuetan, aldiz, libre sentitzen naiz.

Zer diozu zuk Angulemako komiki jaialdiko sari nagusirako hautagaien zerrenda gizonezkoz soilik osatuta ikustean?

Mundua aldatzen ari da, jendartea aldatzen ari da, baina jaialdiak lehengoan jarraitzen du. Antolatzaileak eroso jarri dira. Ez dute agerikoa ikusteko ahalegirik egin nahi izan. Komikiaren historiaren maskulinitasunaren gibelean gorde dira. Aurten lehertu arren, aspaldikoa da auzia. Gizonezkook orain arte oso paper eroso jokatu dugu. Gure pribilegioei uko ez egiteagatik ez zela gure borroka sinestarazi diegu gure buruei. Nola ez da gure borroka izango? Jaialdi garaian, protesta bideratu zuten اندrazko komikilariek orotariko hoge bineta jarri zituzten ikusgai, ikusleei

bakoitza emakume edo gizon batek marraztua zen galdetuz. Publikoaren ustez hogeitik hiru ziren emazteek eginak. Praktikan, denak ziren emakumeenak. Oso esanguratsua da. Gure aurreiritziek ipurdi-bistan uzten gaituzte. Denei dagokigu aldatzea, baita Angulemako jaialdiari ere.

Merkatuak egilea aldatu dezake?


Espainiako komikiaren merkatuak bidea egin du, irakurleak irabazi ditu, saltoki handietan bere lekutxoak lortu du, prestigioa ematen dion sari nazionala dauka, jaialdi literarioetatik deitzen gaituzte... baina merkatua ez da aski handia inor gatu hartzeko. Frantzia, aldiz, komikiaren industria dago, tartaren zati handiena irensteko lehia. Hala, argitaletxe handiekin lan egiten dutenek sei hilabeteko argitaratu behar dute, saltzen dena marrazteko eskatzen zaie, entrega data oso zorrotzak dituzte... Ez dute zerikusirik liburu bat egiten bi edo hiru urte pasatzen dituztenekin. Horiek badakite ezingo dutela hortik bizi. Frankotiratzailak dira, independenteak. Niretzat ez da drama komikiak sortzeaz gain ilustrazioak egin edo tailerrak eman beharra. Ez nago bizimodua komikitik ateratzearekin obsesionatuta. Ez dio alferrik Eddie Campbell komikigileak, XIX. mendean poesia iritsi zen estimazio intelektualaren mailara heldu dela komikia, eta aurrerantzean, poesiaren gisan, ahanzturan hondoratzea dagokigula. Pauta ona da oinak lurrean jarri eta gogoari hegan egiten uzteko.

Gogoari hegan egiten utzi... norbere lainoa aurkitu arte?

Egin nahi dudanaren, egin dezakedanaren, nirea soilik den eta besteen era-



“Kriki-karak egon arren, kultura balio erantsitatz dauka Frantziak. Frantzia dauden erraztasunak ez ditut amestu ere egiten Espainian”.



EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu pertsonalizatueta adituak

**Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14**

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com

ginez egiten dudanaren nahasmenean bizi naiz. Ez naiz ziurtasun handiko pertsona. Ez daukat printzipio erroturik, egia absoluturik, muturreko hitzik. Jakin-nahiaren bidean bizi naiz, etengabe-ko bilaketan. Dena aldakorra, lausoa eta likidoa den garaiotan, oso eremu labainkor eta hauskorra da hori. Azkarregi doa mundua guztiaren ikuspegi monolitiko bat eduki ahal izateko. Bigarren eskuko arropa bezalakoa naiz, sekula ez moda-modakoa, inoiz ez guztiz lekuz kanpo-koa, eta azkenean, bere lekua aurkitzen duena.

Agintarientzat, ordea, kultura beti da azken eskukoa.

Frantzia, 80ko hamarkadatik da Kultura Ministerioa benetako Ministerioa. Dirua mugitzen du eta salbuespen kulturalaren aldeko estrategia dauka. Zinema frantsesari dirua ematen dio frantsesa delako, zine-aretoetan kuotak ezartzen ditu, liburutegi eta liburu-denda sare zabala dauka, jaialdiak bultzatzen ditu... Kriki-krakak egon arren, kultura balio erantsitza dauka Frantziak. Frantzian dauden erraztasunak ez ditut amestu

Azken hitza: Angulemako sortzaileen etxea

"Dublindarra oso liburu ezberdina zatekeen Asturiasen, etxean bakarrik, marraztu banu. Angulemako sortzaileen etxean lan egin ahal izatea pribilegio handia da. Energia handiko gunea da, mundu guztitik datozen sortzaileengandik ikasten duzu, galderak egiten dizkizute, erantzun beharrak zure burua argitzera behartzen zaitu... Iraultzatxo bat da bakarrik lan egitera ohituta dagoen ofizioarentzat".

.....

ere egiten Espainian. Espainian kultura ez baitzaio garrantzirik ematen. Idazle espainolak ez dira frantsesak baino okerragoak, musikari frantsesak ez dira espainolak baino hobeak... lan egiteko

sareak eta jendearen pertzepzioak markatzen du aldea. Esaterako, komikigintza umetatik lantzen den pasio bat da Frantzian. Merkatuak dirua inbertitzen du, eskoletako liburutegiak komikiz mukurru daude, umeentzako jaialdiak egiten dira... Espainian, ez da etorkizuneko irakurlerik zaintzen. Hala, nondik erakarriko dituzu zaleak? Erein gabe uzta jaso nahi izateak ez du kulturarekin zerikusirik.

Ereiten ala uzta biltzen, nola marraztuko zenuke Alfonso Zapico aitona?

Liburuak marrazten ageri naiz, sortzaile independentearen 24 orduko zurrunbilo hori jasan beharrik gabe. Orduan ere modakoa izango ez naizenez, sari nazionala irabazi nuenean ere ez nintzela modako autore gogoratuko dut. Ispiluak bigarren eskuko arropa geroz eta zimurragoa dagoela salatzen didanean, autorearen obrak baino autorearen bizi-moduak erakartzen ninduela pentsatuz kontsolatuko naiz. Haurtzaroko grisekin edo bizitzan topatutako koloreekin, jakin-mina garatzen segitzeko gai izatea espero dut. ■



Kalean da martxoko

aizu!

- Egia auzoa euskahalduntze bidean
- Garoña: orain, zer?
- Baserri Antzokia Txorierrin
- Burdin Hesian Karraderan
- Karmele Larrinaga arin-arin

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizu.eus

Krisialdi berri baten ostotsak

Azken hilabete hauetan sarritan entzuten ari gara, mundua ekonomia krisialdi berrian sartzen ari dela. Hori egiaztatzeko badaude zantzuak. Petrolioren prezioa inoiz baino apalago dago, 120 eurotik 30-34 eurora jaitsi da. Oinarrizko metalak oso merke daude mundu merkatuetan. Langabezia-tasak zertxobait erori ostean arriskuan daude gora egingo ote duten, nahiz eta Espainiako Estatuan edo Grezian jadanik oso goian dauden. Interes-tasak ezin dira gehiago jaitsi, zero edo zerotik hurbil baitaude eta margen txikia dago eragin-garriak izateko. Halaber, banku sistema ere jota dago, zorrez josita dagoelako, batik bat Europar Batasunean (EB) non Italiakoak eta Greziakoak porrot bidean sartu baitira, ahaztu gabe Deutsche Bankek 2015eko urtealdian 6,7 mila milioiko galerak izan zituela.

Zalantzarik gabe, Txinako ekonomia da petrolio eta oinarrizko metalen eskarian eragiten duena, eta bere ekonomia moteltzen ari denaren zantzuak daude. Ekonomia horrek bi digituetako hazkunde-tasak izan ditu azken hamar-kadetetan eta industrializatu da abiadura bizian, eta ondorioz, munduko merkatu gehienetan presente dago. Hazkunde hedakor hori sabaia jotzeaz dago eta eredu berri bati heldu behar dio, non barne kontsumoak eta hirugarren sektoreak protagonismoa hartu beharko baitute. Aurreikuspenen arabera hazkunde-tasa berriak %ko 6-7 ingurura eroriko dira.

Horrelako fenomenoak ez zaizkigu ezezagun egiten. Gure artean ere horrelako zerbait gertatu zen duela 50 bat urte. Espainiako Ekonomia Garapenerako Planak zirela eta, Euskal Herrian, baita Espainiako Estatuan ere, bi digituetako hazkunde-tasak izan genituen industriaren garapen desorekatuan oinarrituta. Urte batzuk beranduago, industriak sabaia jo zuen eta geroztik



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EHU-KO IRAKASLEA

Hego Euskal Herrian oraindik ez dugu gainditu 2008an hasitako geldialdia eta hurrengo uzkurraldia begi-bistan dugu. Horrelako egoeran, langabezia bideratzeko politika publiko eragingarririk ez da sumatzen eta legebiltzarrek, bai estatu osoan, baita autonomia erkidegoetan ere, ez dute seriozki hartu enpleguaren afera

enplegua galdu besterik ez du egin industriak.

Petrolioaren prezio apalak esplikatzeko kontutan izan behar da ere erregai horren eskaintza handitu dela eta espresuki Saudi Arabiak indartsu jokatu nahi izan du, errege berriaren eitea garbi azaltzeko eta, bide batez, fracking bidez lor daitekeen erregaia lehia prezioetatik at uzteko, baita Errusia, Iran edo Venezuela bezalako lehiakideak kaltetzeko ere. Azkenaldi honetan, Irango petrolioaren eskaintza gehigarria kontutan hartu behar dugu. Beraz, petrolio kopurua erruz dago merkatuetan eta horrek jaitsarazi du bere prezioa.

Eta gure artean zer? Hego Euskal Herrian oraindik ez dugu gainditu 2008an hasitako geldialdia eta hurrengo uzkurraldia begi-bistan dugu. Horrelako egoeran, langabezia bideratzeko politika publiko eragingarririk ez da sumatzen eta legebiltzarrek, bai estatu osoan, baita autonomia erkidegoetan ere, ez dute seriozki hartu enpleguaren afera. Bidenabar aitortu behar da, legebiltzar horietako enplegu batzordeen emaitzak, orain arte bederen, ez direla izan oso baikorrak: lanpostuen malgutasuna areagotu eta prekarietatea indartu besterik ez baita egin, hiritar gehiengoaren kezka nagusia erantzunik gabe utzita.

Gure agintariak, noiz behinka, enpresari handiekin biltzen dira enpleguaz mintzatzeko. Bien bitartean, enpresari horiek enplegu murrizketak besterik ez dituzte burutzen. Adibide gisa, hor ditugu banku, Telefonica, ACB (Arcelor-Mittal), TRW eta besta enpresa askoren enplegu murrizketak. Orain Tubos Reunidos ere zerrenda horretan sartuko dugu. Hala ere, gure agintari politikoek beti prest enpresari bote-retsuei men egiteko eta gainera diruz laguntzeko. ■

ETB ezkutuan bizi da

ARGI Arako idatzi nuen azkenengoa, Zinemaldiaz izanik, erraza izan zen, nahiz eta gure zinemaren independentziaz idatzi. Oraingoan erraza zatekeen ere, DSS2016 hor egonik. Hor dago *Katebegiak* egitasmoa. Ez dakit oso ondo zein kate osatzen lagunduko duten katebegi horiek baina izenburua ponpoxoa da, propaganda ofizialean esango luketen bezala, oso bat dator egitasmoaren helburuekin. Kontua da, aurtun Donostian egiten den oro kultura arloan oso bat datorrela helburu horiekin, eta ez baletor ere etorraziko litzaioke. Baina ez dut hiriburuaz idatziko, ETBz baizik. Zeren gezurra badirudi ere, ETBk existitzen du oraindik ere.

Mezu bat jaso dut *Beti eskamak kentzen* telesail berria iragarritz. Polita, dotorea eta ongi eginga. Espero dut, benetan, ongi joatea, nahiz eta horrek ez duen inolako bermerik suposatzen. Hor dugu adibide gisa *Aitaren etxea*. Ondo eginga zegoen baina ez du jarraipenik izan. Eta horrela zenbat eta zenbat, azken urteetan. Gure kate publikoaren jarrera Espainiako generalisten berbera da: audientziek agintzen dute. Aldez aurretik eskatzen duten audientziarik ez bada ematen, *hor konpon Marianton!* Zeren arabera eskatzen dute *ratinga* ordea? Esango nuke gertuago dabilela



Eneko Olasagasti

ZINEGILEA

@EnekoOlasagasti

EITBko Administrazio Kontseiluan zertaz eztabaidatzen dute, langileen kanporatzeaz gain?

desiotik errealitatetik baino. Errealitateak hutsetik gertuago kokatzen baikaitu desioek markatzen duten zenbakitik baino. Seguruenik, *Beti eskamak kentzenek* "huts" eginez gero, ETBn ari dira jada ordezkioa prestatzen. Eta horrela bat, eta beste bat, eta... Noiz arte?

Ez dut ETBk beharko lituzkeen helburuen gaineko eztabaida berriro aipatu nahi. Telebista publiko baten betebeh-

rraren gaineko gaia gutxitan azaltzen da euskarazko hedabidetan. Uste dut ez zaiola inori interesatzen. Badirudi onartu dugula ETBrenak ez duela konponbiderik, gureganatuta daukagula ezer egin ezinarena, patu kontua balitz bezala, konponezina den zerbait. Nire buruari galdetzen diot, zer egiten ote duten EAJ ez diren beste alderdiek EITBko Administrazio Kontseiluan? Zer eztabaidatzen dute haien bileratan, langileen kanporatzeaz gain?

Urte mordo pasatu da telebista publikoaren egitura asmatu zenetik. Trantsizioa bera Espainian zalantzan jartzen denean ezin al dugu guk geure telebista eredu zalantzan jarri eta beste modu batean egin daitekeela pentsatu? Ni baiezkoan nago. Lau kate behar al ditugu, hainbeste langile, egoitza erraldoia? Zertan xahutzen da aurrekontua? Edukietan ala egitura mantentze hutsean? Galdera zerrenda luzea dateke. Baina berdin dio, ETB bertan goxo dago, ezkutuan balego bezala, tarteka polemika deserosorik sortuko ez balitz bezala. *Barrura begiratzeko leihoak* emititzearen inguruan sortu zena bezala. Orduan, Lehendakaria bera atera zen plazara ezinezko aitzakiak emanez. Erantzukizunen gaineko desproporzioa ikaragarria dela onartuko didazue behintzat. ■







www.bilbaoeuskaraz.eus

www.ikusietaikasi.net

www.harrapazank.com

Nafar agintariak, bide irristakorrean aitzina



Fermin Erbiti
KAZETARIA

Politikariena joko zelai irristakorra da, esku artean dituenak gai konplexuak izaten baitira, ertz askotakoak, soluzio bakar eta argirik gabeak. Ofizio horretan ez dago derrigorrez segitu beharreko araurik, eta orain artekoari eusteak ere ez du deus ziurtatzen. Egia da inguruan dituen teknikarien iritzia lagungarri izan dakiokela politikariari. Lagungarri, besterik ez, teknikarien iritzi guztiak entzunda hasten baita politikarien zeregina. Eta horretarako, jakina, inongo eskoletan ikasten ez den sena da funtsezkoena. Politikariena, beraz, jarduera erakargarria da, betiere amildegiaren ertzean ibiltzeko kementa duenarentzat, noski.

Honaino Daniel Innerarity filosofoak *Política en tiempos de indignación* liburutik harturiko ideia batzuk. Pentsatzekoa da Uxue Barkos lezioa ongi ikasia sartuko zela Diputazioaren jauregian iazko uztailen, lehendakari bihurtu zelarik. Izan ere, filosofoaren ikaslea izan zen gaztetan, eta politikan bidelaguna du orain.

Aldaketaren gobernuaren eratu zenetik urte erdira, nafar agintari berriek ederki frogatu dute zenbateraino den irristakorra zapaltzen duten zorua. Lehen hilabeteotan, bi erronka nagusi zituzten: erreforma fiskala eta 2016ko aurrekontua. Biak aise gainditu ondotik, irakaskuntzako lan publikoaren eskaintzak sortu du kalapitarik

handiena, eta arrakalen bat gobernuari babesaren ematen diotenen artean.

Gobernuan, noski, oro ez da urre. Edonork aurreikus zezakeen lanpostu gehienak euskaldunentzat izateak polemika piztuko zuela. Hobe, beraz, gaia aitzinetik behar bezala landu izan balitz. Baina ez gaitzezen inozoak izan: oposizioak sutsu joko du euskara bultzatzen duen edozein neurriren kontra. Eta gobernuari sostengua ematen dioten batzuen jokamoldea ere ez da hain harri-garria. Euskararen legearen beraren aldaketa ez al zen, ba, konpromisoetatik kanpo utzi, horretan guztiak ados jartzerik ez zegoelako?

“Porrota edo arrakasta partziala kudeatzen ez dakienak ez du politikarako balio, hor ere erabateko arrakastarik ez dagoelako. Politika jarduera mugatua da, hala moduzkoa, frustrazioz beterik, bizitzaren antzekoa”. Horiek ere Innerarityri lapurturiko hitzak dituzue.

Batzuen erreakzioak ikusita, komeni da esaldi horiek azpimarratu eta, bide batez, euskaltzaleok urte erdian jaso ditugun albiste on batzuk gogoratzea: D eredua Nafarroa osora zabaldu da, Euskalerrria Irratia legezkota da, ETB ikusten dugu, euskaltegiak diru-laguntzak jasotzen hasi dira, gobernuaren irudia elebiduna da... Nondik gatozen eta nora buelta gaitzezen kontuan harturik, horixe iruditzen zait azpimarragarria. ■

Zergadunak



Itxaro Borda
IDAZLEA

Goiz batez, lanera joan aitzin, irratia entzuten nengoela *Jeunes Agriculteurs* sindikatuko ordezkari bat aditu nuen, laborantzako arazoez mintzo zen: egoera larria alabaina nekazar eredu ekoizkorra segitzen duenarentzat. Prezio apalak, soberakinak, banatzaile erraldoien falangeak... Egundainoko leloak.

Harritu ninduen ordea gizon gazteak nola deitu zituen laborariak ez ziren baserri mundutik kanpo bizi diren jendeak: zerga ordaintzaile ertainak. Apaleste doinu batez ahoskatu hitzekin gainera. Hiritar edo herritar horiek ez ditu haurride, ez erkide, are gutxiago destino ahaide. Zergak pagatzen dituzte (beraz laborantzara

doazen laguntzen parte bat?) eta hori da beraien ezaugarri bakarra.

Ordaintzaile zekenak badaki noski, zergak ez datozela bat beti egiten den laborantza motarekin: genetikoki aldatu hazi gehiegi, pestizidak, antibiotikoak eta probiotikoak, anfetaminak... Guztiak gero plateretan aurkitzen direla, jende askoren osasuna kinka larrian uzteraino, hain zuzen ere bere zabor-produktu merkea zergarik pagatzen ahal ez dutenen asetzera doala.

Agian noizbait inguruko jendeak jende gisa kontsideratuko dituenen bestelako nekazaritza bat irudikatzen hasiko da haserre mutuak bulkatzen duen sindikalista elekaria. ■

INGELESEZ IKASTEKO PROGRAMA NAFARROAN

UPN-REN GOLIK BOROBILENA

Amua goxoa izan da, “zure haurrak primeran ikasiko du ingelesa”. Ordea, Ingelesez Ikasteko Programa (IIP) ezker-eskuin kritikatu dute hezkuntzako eragile ugari, hala nola, irakasleek, zuzendariak, gurasoek eta sindikatuek. UPNk (PSNren babesarekin) abiatu orduko errailetatik aterata doan trena nola bideratu erabaki behar du Gobernu berriak. Oraingoz, moratoria eta ebaluaketa agindu ditu.



Onintza Irureta Azkune
@oirureta

1997-1998 ikasturtean hasi zen UPNren Gobernuak British ereduaren probatzen. TIL (Hizkuntzen Tratatua Bateratua) ezaguna etorri zen ondoren, eta azkenik IIP (Ingelesez Ikasteko Programa). Irakasleak mundu globalizaturako prestatu nahi zituzten, ingeles maila bikaina lortuko zuten gaztetxoak lan merkatuan airoso ibiltzeko. Ez zuten esaten hedatzen ari zen D ereduari galga jartzeko modu ederra aurkitua zutela. Espainiako Estatuan, antzeko estrategia darabilte eskuineko indarrek bertako hizkuntzak ahultzeko Valentzian, Balearretan eta Galizian.

Nafarroako sare publikoko 106 ikastetxetan dago IIP ezarria, horietako bost D ereduak dira, eta gainerakoak A eta G ereduak. Hezkuntza sisteman hizkuntza, ingelesa, bihurtu dute helburu, eta bidean urtetan garatutako lan-ildo interesgarriak txokoan geratu dira, hala nola, hezkidetzak, bizikidetzak eta irakurketak.

Britishetik hasi eta IIPraino gabezia pedagogiko eta hutsune nabariak izan ditu programaren ezarpenak, gero azalduko ditugunak. Hala ere, Steilas sindikatuaren ustez, metodologia bikaina izan balitz ere, guztiz zalantzan jartze-



koa da hezkuntza sistemak atzerriko hizkuntza helburu nagusitzat hartzea, eta baliabideak horretara bideratzea.

UPNren Gobernuak abiatu zuen eta orain Geroa Bai, EH Bildu, Ahal dugu eta Izquierda-Ezkerrak osatutako Gobernuak du patata beroa eskuetan. Inoiz aurrez egin ez den ebaluaketaren diseinua aurkeztu du, non batetik, inkestak, elkarriketak eta eztabaida taldeak egingo diren ikastetxeetako zuzendari, irakasle eta gurasoekin, eta bestetik, unibertsitateak eta kanpoko enpresek parte hartuko duten. Bitartean Gobernuaren akordio programatikoan ondokoa dio:



2014ko argazkian, Yolanda Barcina Nafarroako Gobernuako presidente ohia eta José Iribas Hezkuntza kontseilari ohia ageri dira, IIP programaren bultzatzaileetakoak, Noaingo San Miguel ikastetxean.

WWW.NAVARRA.ES

“Gutxienez urtebetez IIP hedatzeari utziko zaio, oraingo programa ebaluatu eta hizkuntzen trataera integratuaren plan berria diseinatzeko”. Beraz, programa ez daukaten ikastetxeetara ez da zabalduko, baina badutenek bere horretan segiko dute, eta 3 urtekoek ere hasi ahal izango dute 2016ko irailean.

Nafarroako Gobernuak jasotako informazioaren arabera, Ingelesez Ikasteko Programak, bere ezarpenean, ez ditu bete halakoetan eskatzen diren protokolo eta arauak. Ingeles eta atzerriko beste hizkuntzen Saileko teknikarien balorazioa ere halakoa da: azken bi ikas-

turteetan, IIP ezarri den ikastetxeen hamarretik batek baino ez du ezarpenaren balorazio positiboa. Ikastetxeen hiru-laurdenetan ez ezartzea aholkatu zen.

Nola azaldu fotosintesia ingelesez ez badakite?

Galdera horri erantzun baino lehen kontatu dezagun zein diren IIP programaren ezaugarri nagusiak. Haur Hezkuntzan (3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzan (6-12 urte) ari dira ezartzen. Ikastetxearen eta adinaren arabera ikasgaien %30-40 ingelesez ematen dute. Beraz, kontua ez da ingelesa ikasgai gisa edukitzea baizik

eta ikasgaiak, hala nola, matematika, ingurumena, plastika... ingelesez ematea. Haurrek bi tutore dituzte, batek ikasgaiak ingelesez ematen ditu eta besteak gaztelaniaz. Bost ikastetxe baino ez dira euskaraz eta ingelesez ari direnak, alegia, D-IIP ereduak.

Steilasen iritziz, “programak ez dauka inolako oinarri pedagogikorik”. Eta hori dioenean, besteak beste, irakasleen prestakuntzaz ari da. Hezkuntza Departamentuaren helburu gorena irakasleek C1 maila lortzea da, ingelesa ikastea alegia, eta horretara bideratu dituzte inbertsioak. Alabaina, oso gauza dife-


rentea da irakasleak ingelesez ikasgaiak emateko prestatzea. Horri lotuta, bi tutoreen arteko koordinazioa funtsezkoa da, hizkuntza bakoitzean ikasgaiak nola irakasten ari diren kontrolatzeko. Baina, “tutoreek ez dute denborarik koordinaziorako, atsedenaldiak baliatzen dituzte, pasabideetan hitz egiten dute, WhatsApppe eta e-postaz ari dira”.

IIP programa erdi-murgiltze eredua da. Haur eta Lehen Hezkuntzako umeez ez dute ingelesa menperatzen eta edukia azaltzeko orduan, sarri, azalpen maila apaldu edo baliabide bisualak erabili behar izaten dituzte. Haurrak fotosintesia azaltzeko bere hitzak erabiliko lituzke menperatzen duen hizkuntzan arituko balitz. Aldiz, ingelesez ez da moldatzen eta besteak beste esaldiak buruz ikasten ditu. Matematika, plastika edo gorputz heziketan ez da hainbesteko galera, baina hizkuntzak zeresan handia duen ikasgaietan, hala nola, natura eta gizarte zientzietan bai.

Irakasleak haserre, etsita eta nekatuta

Steilas sindikatuak IIPri buruz txostena egiteko hainbat irakaslerengana jo zuen. Haien lan jardunaz eta baldintzez gehiago jakiteko irakasleren bati ARGIAk elkarrizketa egingo liokeela adierazi diegu. Erantzuna argia izan da: “Agian norbaitek baietz esango du, baina ez dut uste nor den agertzerik nahiko lukeen”. Irakasleak etsita daude arrazoi askorengatik: prestakuntza egokirik izan ez dutelako, eskolan beste tutorearekin koordinatzeko denborarik ez daukatelako, ikastetxe batetik bestera dantzan dabilatzalako, IIPn aritzera behartu ditzutelako...

Hezkuntza Departamentuak IIP programa abian jarri eta Nafarroa osoan zabaldu bai, baina prestateta egokiko irakasle nahikorik ez. Ingelesko C1 maila eta Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako titulua duten irakasle nahikorik ez dago. Beraz, IIP irakatsiko duten irakasleak eduki ahal izateko trikimailu bat baino gehiago erabili dute. Berez, C1 maila eskatzen zaie irakasleei, baina eskaerari erantzuteko adina irakasle ez dagoenez, B2 maila dutenak ere lanean jarri dituzte. Orain, C1 maila egiaztagiri behin-behinekoak eman dizkie irakasleei 2021. urtera arte. Steilasek esana da: “Irakasleen %80tik gorak C1 duela esaten dute, hau da, erdiak egiaztagiri



behin-behinekoa du”. Badira C1 maila duten irakasleak baina Haur eta Lehen Hezkuntzako titulua ez dutenak. Haiei, tituluak lortzeko bide azkarragoak eman dizkiete.

IIPko irakasleek ez dituzte lanerako baldintza egokienak. Bitxia da gertatzen dena; hainbat irakasle badu C1 maila, baina egiaztagiria dutela ezkutatu nahian dabilta, ez dutelako programa horretan parte hartu nahi, badakitelako eskolak prestatzeko denbora gutxi izango dutela, formazio gutxi eta norberak beretik asko eman beharko duela. C1 daukaten beste batzuek berriz, ikasleei ikasgaiak ingelesez irakasteko adinako mailarik ez dutela uste dute.

Ikasleak erritmoa jarraitzeko gai al dira?

Batzuk bai eta beste batzuk ez. Hona Steilasek emandako adibidea: “Zambian eskolan hasi orduko ingelesez egiten dute dena. Azkarrenek dena harrapatzen dute, eta harrapatzen ez dutenak bidean geratzen dira”. IIP programan ingelesak ez ditu Zambian adina ordu hartzen, baina arazoak sortzen dira. Ikas prozesuan zailtasunak dituzten haurrak IIP baino lehen gela barruan egoten ziren eta tarteka ateratzen ziren eskola bereziak hartzeko. Orain, ingelesez ematen diren ordu guztietan gelatik kanpo dira. Beste haur batzuek ikasturtea errepikatu gabe geratu behar izan

HEZKUNTZAKO LEP-A ETA EUSKALDUNON AHULDADEA



Xabier Letona
@xletona

Nafarroako Gobernuaren lehen eskaintza. 2015eko azaroaren hasieran Hezkuntza Sailak 425 lanpostuko Lan Eskaintza Publikoa (LEP) iragarri zuen, horietatik 334 2016rako (320 irakaslerako eta 14 behatzaileako). Beste 91 2017rako ziren, Bigarren Hezkuntzarako irakasle lanpostuak.

Euskarazko plazak arazo. 2016rako aurreikusitako 320 plaza horietatik, 228 ziren euskaraz eta 92 gaztelaniaz. Horrek sua piztu zuen Nafarroako gizartearen zati batean. AFAPNA, CCOO, UGT, UPN, PSN, PP, Izquierda-Ezkerra eta Ahal Dugu aurka agertu dira. EH Bildu, LAB, Steilas eta ELA alde.

Gaztelaniako irakasleak soberan.

Euskarazko plazak gaztelaniakoak baino gehiago izateko argudio hau eman du Hezkuntza Sailak: Ingeleseztatik ikasketen Programak (IIP) sare publikoaren gaztelaniako zentroetan izan duen zabalkundearen ondorioz, gaztelaniako irakasle elebarrak soberan dira eta, beraz, ez du zentzurik gaztelaniako plaza gehiago sortzea.

Madrilgo Gobernuaren helegitea.

Otsailaren hasieran Estatuak helegitea jarri zuen UPNk 2015eko martxoan onartutako 358 plazako LEParen aurka. Hau ulertzeko 2015eko udal eta foru hauteskunde garaia itzuli behar da, orduan Javier Esparza UPNko lehendakari gaiak 900 lanpostuko LEPa iragarri baitzuen bere programan. Azkenean iazko martxoaren 25ean UPNren Gobernuak 358ko LEParen dekretua egin zuen, hauteskundearen atarian: 214 plaza osasunean, 134 hezkuntzan eta 10 suhiltzaileentzat.

2013, 2014 eta 2015erako Estatuak aurreikusitako irakasleen erretiroak ordezkatzeko postuak bilduta egin zuen hezkuntzako eskaintza José Iribas kontseilariak. Dekretuak ez zuen kontuan hartu 2014ko



IÑIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

Otsailaren 20an Iruñean bildu ziren hainbat sindikatu LEParen aurkako elkarretaratzean.

ordezkapen plazak LEP baterako erabilgarri uzteko, 2014aren amaiera baino lehenago egin behar zuela horretarako eskari formala. Estatuaren abokatuak orduan jakinarazi zion UPNri forma akats hori, baina UPNk aurrera egin zuen. Estatuak edozein unetan jar zezakeen helegitea, baina min gehien egin zezakeenean jarri du.

Kontua da UPNk ez zuela zehaztu hezkuntzako 134 plaza haietatik zeintzuk ziren 2014ari zegozkion ordezkapen plazak, amarru horrekin operazioa pasatuko zela. Estatuaren abokatuak, beraz, denek aurkako helegitea jarri du.

Euskarazko 120 plaza bazterrean geratu dira. Helegitearen emaitzaren zain, eta presioen ondorioz, Haur eta Lehen Hezkuntzako 120 plaza korapilotsuak bazterrean gelditu dira (gehi behatzaileen 14ak), datozen hiru urteetan aterako direlakoan. Aurreikusitako 320 plazetatik, beraz, 200 bakarrik aterako dira orain, 108 euskaraz eta 92 gaztelaniaz. Erabaki honekin sailak Hezkuntzako Mahaiaren gehiengo sindikalaren –LAB, Steilas eta ELA (%56)– aurka egin du.

Zerrenda bakarrik ez. Euskarazko lehenetako irakasleen aldarrikapen historikoa da zerrenda bakarra, baina Nafarroako Gobernuak ez du onartu. Euskarazko irakaslea gai da klaseak euskaraz zein gaztelaniaz emateko, baina hautatu behar du euskarazko zerrendan edo gaztelaniakoan joatea. Gehiago jakitea zigortu egiten zaio. Aldarrikapena da irakasle guztiak zerrenda bakarrean joatea eta bakoitzak hautatzea non eman nahi dituen klaseak. Bi hizkuntza ofizial dituzten gainerako erkidegoetan hala da.

Orain arte azterketa egun eta ordu berean izan da eta aurretik bi egunetan egingo da, horrela euskaldunak bietara joateko aukera izango du. Zerrenda bakarren aurkakoei protesta egin dute, molde horretan euskaldunak bi aukera izango dituelako. Argudio horri helduta, AFAPNA sindikatuak helegitea jarri du LEPren aurka.

Bertsio luzea:
www.argia.eus/albiste/nafraroako-hezkuntzako-epearen-labirintoan-ez-galtzeko-gida

dute, ondorengo urteko haurrak IIP programan hasi direlako. Ikasle alofonoek ere nahikoa lan dute. Etiketarik ez dakarte ez euskara, ez gaztelania, senegaldarren, errumaniarren eta magrebtarren seme-alabak dira besteak beste. Etxean hizkuntza bat, eta eskolan bi berri (ingelesa-gaztelania edo ingelese-euskara).

Irakasleek beraiek diote, ikas prozesuan atzerapen txikiak zirenak behar berezi iraunkorrak bihurtu direla.

Europar beste inon ez

Europar behintzat, Nafarroa moduan dabilen bakarra Espainiako Estatuko Kantabria da. Han ere Haur Hezkuntzan

hasten dira ikasgaiak ingelesez irakasten. Espainiako Estatuan (EAEn ere bai) ohikoena 3 urterekin ingelese ikasgai gisa ikasten hastea da. Europar, orokorrean, geroago hasten dira.

Adituek zalantza handiak dituzte hain umetan atzerriko hizkuntza ikasten has-teak dituen onurez. 2014an, (ARGIA



Atarrabiako Lorenzo Goicoa eskolan kontalaria ipuina ingelesez kontatzen. 2014ko argazkia da.

2.424zkb.) hiru adituri haien iritzia eskatu genien EAEko hezkuntzan ingelesez irakasteko metodoaz. Ez dira pareko hizkuntza ereduak EAEkoa eta Nafarroakoa, baina adituon hitzak baliozkoak direla uste dugu. Jasone Cenozek (EHUn Hezkuntza Zientzietan katedraduna) apenas uste duen ingelesez 4 urterekin irakasten hasteak abantailarik duenik. Ahoskeran hobeto moldatzen ote diren: "Baina hemengo irakasleekin ez, eta ahoskera lortzeko hizkuntza input masiboa behar da". Uri Ruiz Bikandiri (EHUn Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolan Hizkuntzaren Didaktika irakaslea) alferrikako gastua iruditzen zaio hain goiz hastea ingelesarekin, "eta ingelesez goiz sartuta euskararentzako zeneukan esparrua galdu dezakezu. Nafarroan hori egin dute". Itziar Elorzari (EHUn Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakaslea) 4tik 8 urtera bitartean ingelesez irakastea gizartearentzat errentagarria den galdetuta, dudakoa izan daitekeela erantzun zigun: "Geroago hasi eta diru baliabide berberak jarriko balira, eta beste era batera egingo balitz...", eta EAEko hizkuntza kudeaketaz ari da, Nafarroakoarekin alderatuta nabarmen balorazio hobea jaso duena.

Demokratizazioa?

Ingelesez ikastea ikastetxe pribatueta luxua. Hala zela diote UPNk, hainbat sindikatuk eta guraso taldek. Haiek aldiz, maila sozioekonomiko altuko familientzako zen hezkuntza eredu demokratizatu dutela diote, IIP programa ikastetxe

publikoetan txertatzeari esker. Steilasen ustez, kontrakoa gertatu da, maila sozioekonomiko diferenteetako ikasleentartearen arrakalak zabaldu dira. Familia zenbat eta goi mailakoagoa izan orduan eta baliabide gehiago ikasleari laguntzeko, eskolan ez bada moldatzen gurasoak lagun diezaioke (ingelesez jakiteko aukera gehiago ditu), edo neguan akademiara joango da eta udan Irlandara. Baliabide gutxiako ikasleak ez du halako aukerarik izango, eta arrisku latza ingelesez ikasi gabe geratzeaz gain gainerako ikasgaiak gainditu gabe geratzekoa.

Ez da denentzako aukera paregabea, eta horretaz gain, herri askotan, ikastetxe bakarra dagoelako, ez dute beste aukerarik izan, IIP bai ala bai.

Azterketa gainditu baduzu gela honetara, bestela beste gela hartara

Har dezagun euskararen adibidea. Ingu-rune erdaldunean ikaslea urtero ikasgaiaren %30-40 euskaraz ikasten aritu da. 12 urterekin euskara azterketa egin eta ez du gainditu. Erabat gaztelaniaz ari den lerroa pasa dute haurra. Horixe egiten dute Nafarroan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. DBH hasi baino lehen bahea pasa behar dute. Ingeles azterketa gainditzeko duten gaztelania-ingeles ereduaren segituko dute eta gainditzeko ez duten gaztelania hutsean. Urtetan ingeles dosi handia irensten aritu eta gero kito. Ikasgela horretan pilatzen dira etxetik alofonoak direnak, eskolan berandu hasi direnak, ikasteko zailtasun bereziak dituztenak... ■

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

Gasteizen
euskarazko hauek
ez galdu



euskara, zure frekuentzian

Gozatu euskaraz liburategietan!

• ALDABE

Ibili alai, ipuinetan blai
Izaskun Mujika (ipuinar kontalaria)
Martxoak 14, 18:00; 4-7 urte

• ARANA

Ipuinak eskuez
Iñaki Carretero + Arabako Gorra elkarte
(ipuinar kontalaria)
Martxoak 7, 18:00; +4 urte

• ARIZNABARRA

Hala Bazan
Rosa Martínez (txotxongiloak)
Martxoak 19, 18:00; 4-8 urte

• ARRIAGA

Garabato Literario
Chispas Literarias (errezitaldia)
Errioxako eta Arabako poeten
literatura independentea
Martxoak 11, 19:00; helduak

• HEGOALDE

Amamaren magalean
Maite Arrese (ipuinar kontalaria)
Martxoak 12, 18:00; 4-8 urte

• IBAIONDO

Denbora bere lekura
Gerardo Markuleta (errezitaldi komentatua)
Martxoak 9, 19:30; helduak

• IPARRALDE

Amamaren magalean
Maite Arrese (ipuinar kontalaria)
Martxoak 12, 11:30; 4-8 urte

• PILAR

Miangarrarra
Iñaki Carretero (ipuinar kontalaria)
Martxoak 9, 18:00; 1-3 urte

• SALBURUA

Adimen anitzak ditut
Izpiak (lantegia)
Martxoak 9, 18:00; 5-12 urte

Oihaneder euskararen elxea

Beduino bat Karibe aldean

Irakurketa musikatua
Martxoak 10, 19:00

Hitza adina mintzo

Gaskoiera: Franck Dolosor
Martxoak 16, 19:00

SolasALEan

Joxe M. Agirretxe "Porrotxe"
Martxoak 17, 18:30

Euskara jendea

Aniztasunaren bidean & JJ Larrea
Martxoak 22, 19:00

Principal antzokia

Florida Pensil. Neskak

Tantaka teatroa. Martxoak 17; 20:30

_Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

230 dokumental baino gehiago ikusgai

Zipotzak 30 urte
Egiaren hazia
Desobedientzia, elkertasunetik konpromisora
Azaroak 20, zorigaitzeko eguna
Bide berriak: elikadura burujabetza Euskal Herrian
Behobia-Donostia: 20 kilometro, mila istorio
Kondor Legioa
Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa 1945-2015
Armadillo
40/24 Txiki eta Otaegiren ondarea
Atzoko enborrak, gaurko ezpalak
Goazen gudari danok
Lurra, lana, izana
Batzarre
Ezkutuko amandrea
Arrakala -zirrikutu bat haitzean-
Gerorik ez da
Mugaritz BSO

Jon Salaberri
Eutsi edo hil
Trikifollia
Perretxikoak, basoetako altxorrak
Herriaren bihotza
GURS: Euskaldunen infernua 70 urteren ostean
Xabiertxo liburuak 90 urte
Dantzan: erabakitze eskubidearen aldeko lorpen feministak
Hilario Arbelaitz sua eta eskua
Malenkoniaren 3 gelak
Haziak - Herri Unibertsitateen loratzea
Ttipi ttapa
Korrika 1980 - 2007
Gu euskahaldunak gara
SlackLine: Grabitateari Erronka
Baso ahaztuak
Badira bagara

...eta askoz gehiago

**Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:**

multimedia@argia.eus

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

 **ARGIA**



MARI JOSE SANZ, BC3KO ZUZENDARIA: “PARISEN GOBERNUEK EZ ZUTEN ADOSTU KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO KONPROMISO ZEHATZIK, KONPROMISOAK HARTZEKO BAIZIK”

BC3, Basque Centre for Climate Change ikerketa-zentroko zuzendari zientifikoa da urtarilaz geroztik. Hein handi batean Parisko COP21 gailurrean hartutako erabakiek ezaugarrituko dute zientzialarien lana klima aldaketaren alorrean, Sanzen aurkezpenean ondo nabarmendu zutenez. Eta Valentzian (1963) jaioetako biologo honi ez zaio eskarmenturik falta nazioarteko akordioaren alorrean, azken urteetako COP gehienetan parte hartu baitu. Iazko abenduan egindakoaz galdezka hasi dugu elkarrizketa.



Unai Brea
@unaibrea

Paris osteko aroan BC3 zentroa zuzentzea izango da zure zeregina. Zeintzuk dira aro horren ezaugarriak? Alegia, zer ekarriko digu Parisko Hitzarmenak?

Parisek kontzientzia bat definitu du, bai klima aldaketaren zergatiak bai haren ondorioak herrialde guztien kontua direla, eta denoi dagokigula zerbait egitea. Gobernuak ez dute konpromiso zehatzik adostu, konpromisoak hartzeko konpromisoa baizik. Baita horiek modu gardenean eta aldiro jakinaraztekoa ere, eta jakinarazpen bakoitzean helburu handinahiagoak ezartzekoa. “Konpromisoa hartzen dugu” esateko modu bigunago bat da, Kyotoko Protokoloa ezartzen zituen helburu oso zurrunetatik –baina herrialde garatuentzat besterik ez– aldentzen dena. Parisen, halaber, aitortu egin da herrialde batzuk dagoeneko jasaten ari direla klima aldaketaren ondorioak. Baina nire ustez,

norberak hartuko dituen konpromisoak jakinarazteko ezarri den mekanismoa da aurrerapausorik handiena.

Baina ez da mekanismo hertsagarriarik ezarri konpromisook betearazteko.

Horrelako mekanismo bat eduki dugu: Kyotoko Protokoloa. Eta ez dugu askorik aurreratu, hertsagarria izateak helburu apalak jartzera eramanez gintuelako. Gainera, helburu horiek betetzeko antolatutako parafernalia oso konplikatu zen, eta bestalde, kasu askotan ez da borondate politikorik izan: batzuek ez zuten sinatu, beste batzuk atera egin dira... Lorpen batzuk izan dira, baina kuantitatiboki Kyotoren emaitza apala izan da. Parisek beste era bateko prozesua abiarazi nahi du. Kyoto eta Paris bitartean asko handitu da arazoarekiko kontzientzia, klima aldaketaren inpaktuen frogak gehiago dugulako; aldi berean, asko

gehiago dakigu hari aurre egiteko erabil ditzakegun tresnez. Orain ikusteko dago zein den benetako borondatea. Paris aurretik estatu bakoitzak bidali zituen konpromisoak ez dira nahikoa, anbiguoak handitu dadin bultzatzen jarraitu behar da.

Bultzatu bai, baina behartu ez...

Esan izan da Parisko Hitzarmena ez dela legalki loteslea, eta bada. Loteslea da bertan jasota dauden betebeharreko konpromisoen berri ematea, eta gero eta helburu zorrotzagoak ezartzea. Kyotorekiko duen alde bat Parisek ez duela konpromiso absoluturik ezartzen alde aurretik. Nolanahi ere, Kyotoko Protokoloa hor dago oraindik. Une honetan berresteke du bigarren konpromiso aldea. Gutxieneko estatu kopuru batek berretsiz gero, estatu horiek Kyotoko bi-dea jarrai dezakete, Pariskoaz gain.



IÑIGO AZKONA

Berandu gabiltza? Parisen hartu den akordio globala Kopenhageko gailurrean hartzekoa zen, 2009an.

Klima aldaketaren aurka borrokatzeak aldaketa sakona eskatzen du ekonomiaren egituretan, eta hori ez da egun batetik bestera lortzen, hausnarketa prozesu handia behar da. Uste dut klima aldaketak dakarkigun larrialdia azkartzen ari dela bestela ere beharrezkoa den prozesu hori. Eta beharrezkoa dela diot besteak beste gure baliabideak mugatuak direlako.

Parisek indartu du klima aldaketa denon ardura delako ideia, diozunez. Baina garapen bidean dauden herrialdeek aberatsei esan diete: borroka honetan buru-belarri sartu behar bagara, lagundu egiguzue aldi berean gure garapena ez moteltzen.

Hori izan da UNFCCCn (Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzio Espä-

rrua) egon den eztabaidarik handienetakoa, 1992an sortu zenetik. Lehen unetik, konbentzioaren zutabeetako bat da erantzukizun komun baina bereizitakoen printzipioa [denek dute ardura baina ez maila berean], kontua da ordutik hona bi aldeen arteko muga lausotu egin dela; ekonomia emergenteak, esaterako, bi blokeen artean daude orain. Ekonomia horiek saiatu dira erantzukizunen jatorrizko banaketa errespeta zedin; herrialde garatuenean aldiz, lausotu nahi zuten. Eta Parisek mantendu du bereizketa, baina ez hain erabatekoa. Erantzukizuna orain, Kyoton ez bezala, estatu bakoitzarena da.

Mundu mailako kanpaina batek eskatzen du erregai fosilen erreserba ezagunen %80 lurpean uzteko, klima hondamendi bat eragozteko. Zer iritzi duzu?

Possible bada, ez zait ideia txarra iruditzen. Ikusi beharko litzateke energia

“Parisko Hitzarmena ez dela hertsagarria? Izan dugu mekanismo hertsagarri bat, Kyotoko Protokoloa, eta ez dugu askorik aurreratu”

“Klima aldaketaren aurka borrokatzeak aldaketa sakona eskatzen du ekonomiaren egituretan, eta hori ez da egun batetik bestera lortzen”

nahikoa sortzeko bestelako biderik ba ote dugun. Eta balantzak alde batera edo bestera egitea eragin dezaketen elementuak ager daitezke datozen urteotan. Demagun, esaterako, fusio nuklearra operatiboa izatea lortzen dela; errazagoa litzateke erregai fosilak lurpean uztea.

Ekonomiaren erabateko deskarbonizazioa iritsi gintezkeela uste duzu? Bero-tegi efektuko gasik batere ez isurtzera, alegia.

Uste dut baietz. Batez ere, erregai finituez ari garelako.

BC3ko ikerketa ildoetako bat klima aldaketak giza osasunean eduki ditzakeen inpaktuei buruzkoa da. Zer inpaktu dira horiek?

Azkenaldian gizartean eta osasun sistemetan kezka gehien eragiten duen gaietako bat bero boladak dira. Beste arazo bat da zenbait gaixotasunen bektoreak – animalia espezie batzuk, funtsean – gero eta eremu zabalagoetara hedatzea. Osa-sungintzak kontuan hartu behar ditu erronka berri horiek, eta egokitu. Beste inpaktu bat elikagai ekoizpenaren gainekoa da. Afrikan, esaterako, oso denbora tarte estua daukate haziak ereiteko, uzta ona lortu nahi badute. Klima aldaketaren ondorioz tarte horiek aldatzen ari dira; aldaketa ez da berez onerako ez txarrerako, baina nekazari askok ez dute haren berri. Betiko eran ereiten jarraitzen dute, eta uzta eskasagoak dituzte. Gaur egun proiektu asko dago nekazari horiei egokitzen laguntzeko.

Ez dakit Naomi Kleinen azken liburua (*This changes everything*, Honek dena aldatzen du) irakurri duzun. Ematen duen mezu nagusietakoa hau da: gutxi gorabehera denbora berdina daramagu batetik klima aldaketari aurre egiteko gailurrak antolatzen eta bestetik nazioarteko merkataritza globalizatzen. Klimaren gailurretan hartzen diren erabakiak eta Munduko Merkataritzaren Antolakundeak (MMA) hartzen dituenak kontrajarriak izaten dira maiz, baina beti MMA-renak gailentzen dira. Bat zatotz?

Eztabaida bakoitza bere bidetik badoa horrelakoak gertatzen dira, eta esan beharrik ez dago zer nolako eragina duen MMAk. Ikusi izan da UNFCCCn, merkataritzari eragiten dioten zenbait alderdiz eztabaidatu denean, herrialde batzuek negoziazioak blokeatu dituztela.



FRANÇOIS MORI-AP-SIPA

Parisko Hitzarmenak ekarri duen aurrerapauso nagusia, Mari Jose Sanzen ustez, estatu bakoitzak bere konpromisoak jakinarazteko ezarritako mekanismoa da, hala nola konpromiso horiek gero eta zorrotzagoak izatera behartzea. Goiko argazkian, Laurent Fabius Frantziako Kanpo ministro ohia eta François Hollande Errepublikako presidentea, Parisko Hitzarmenaren akordioa ospatzen, COP21 gailurraren amaieran.

“Paris aurretik estatu bakoitzak bidali zituen konpromisoak ez dira nahikoa, anbizioa handitu dadin bultzatu behar da”

“Uste dut iritsi gintezkeela ekonomiaren erabateko deskarbonizazioa. Batez ere, erregai finituez ari garelako”

Jai dugu klima aldaketaren alorreko ahalaginei halako oztopoak jarritz gero.

Oztopoak oztopo, aurrera egin da. Eta uste dut oztopo horiek gero eta txikiagoak izango direla gero eta sentsibilizazio handiagoa egongo delako. Are gehiago, gero eta agerikoagoa izango da klima aldaketak nazioarteko merkataritzari ere kalte egin diezaiokeela. Lehen esan dudana bezala, klima aldaketaren

neurriko erronka baten aurrean eredu ekonomikoaren aldaketa larria behar da, eta horrek denbora behar du. Sarritan, aurrerapauso txiki askoren ostean, jauzi handia etortzen da, ez jakin noiz. Klima aldaketaren arriskua batzuen uzkurkeria gainditzeko bezain agerikoa denean, aurrerapauso handiak ikusiko ditugu. Bestalde, uste dut konpainia handi asko gero eta sentiberagoak direla arazoarekiko; batzuek neurriak hartzeko konpromisoa agertu dute.

Eta nork egin behar du konpromiso horien jarraipena? UNFCCCk?

UNFCCCk ezin du, ez da bere funtzioa. Egitekotan, gobernuek eurek. Barne araudien bitartez, gardentasun handiagoa egotea sustatu dezakete, etiketatzearen bitartez esaterako; adierazi dadila garbi zein den kontsumo artikuluko bakoitzaren jatorria, zer klima-inpaktu izan duen hura ekoizteak... Baina UNFCCCk ezin du sektore pribatua arautu. Bestalde, konpainia pribatuek ere parte hartzen dute klimaren gailurretan, elkarrekintza gero eta handiagoa da. Leporatzen zaie ematen dituzten urrats positiboek beren irudia zuritzea beste helbururik ez dutela, baina tira, egin egiten badituzte, ongietorria eman-go diegu. ■

GORPUTZ MULTIKULTURALAK

ODOLAREN TENPERATURA

NORTASUNEN ARDATZ

Kolonbian jaio eta azken hamar urteak Lezon (Gipuzkoa) igarotakoa da Sandra González. Han eta hemen gorputzarekiko ditugun pertzepzio desberdinak kontatu dizkigu bere sentsazioetatik. Erlijioak, kulturak eta klimak, bereziki, interpretazio anitz izatera bultzatu gaituztelakoan. “Finean, denak gara berdinak baina ezin dugu ukatu jendarteak eragina duela gure gorputzengan eta, hortaz, mundua ulertzeko eran”, dio.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

“Latinoamerikarrak odol berokoak gara eta Euskal Herriko klimak zuen gorputzak hoztu ditu”. Hala hasi du elkarrizketa Sandrak eskuak altxa eta dantzan hasi den bitartean. Hotza erantzuleetako bat dela sinetsita euskaldunek gorputzekiko dugun ukazioa aipatu du behin eta berriro. Dantza, sexualitatea, harremanak eta abar gorputzetik deskonektatuta bizi ditugula gaineratu du eta hori ez dela auzi pertsonala, kulturala baizik.

Dantza eta musika hizpide, erritmo latinoak aipatu dizkigu Gonzalezek. Euskal Herriko tabernetan gero eta gehiago entzuten dira eta ezaugarri positiboak azaleratu nahi izan dizkigu: “Musika latinoak ikuspegia aldarazten dio pertsonari; dantzan hasteko gogoia piztu eta protagonismoa emanez gorputzari”. Arrazoi beragatik, ordea, begirada eta komentario negatiboak jaso dituela kontatu digu. –“Egiten ari zarena edukazio txarrekoa da”, esan zioten behin.– “Ez dut inoren begirada erakartzeko egin, aske sentiarazten naudelako baizik.



Dantza probokatiboa gerta liteke, baina sentitzen dut; nahi dudalako egiten dut hemen eta orain”, erantzun zion. Horregatik ez dio inoiz dantzatzeari utzi.

Kultura, baina, ez da soilik musika eta dantza. Ezaugarri batzuk komunean dituen jende talde bat bezala ulertzen du Sandrak. Emakume kolonbiar, ausart, aske eta espiritual gisa deskribatzen du bere burua. Ordea, ez erlijioari kasu egin, gorputzari baizik: “Erlijioak gorputzak inbaditu eta beldurrak besterik ez dizkigu transmititu”. Sexualitatearen tabua, esaterako: “Euskal Herrian sexua ez da lehentasuna eta niretzat normala eta beharrezkoa da. Gertutasuna eta afinitatea sortzen ditu eta garen bezalakoak azaltzeko aukera eman”, dio harrituta.

Bizimoduak duen eraginari heldu dio Gonzalezek. Bizi baldintzek egoera batzuetan kokatu eta horietara moldatzen ditu gorputzak: “Hemen, gatzak falta badugu, ziurrenik erostera joango gara. Eta han, bizilagunari eskatuko diogu. Bizitza elkar trukatzeko dugu. Elkarrekintzan

“Musika latinoak ikuspegia aldarazten digu, dantzan hasteko gogoia piztu eta protagonismoa emanez gorputzari”

dago gakoa eta kulturen artean ere horrek aberasten gaitu: bestearen onena hartu eta nirearen onena emateak”.

Eta, orduan, nola ulertzen dugu gorputza? galdetu diogu. “Jendarte guztietan, sentitzen dugunaren harira ez bizitzeko hazten gaituzte. Burua edukiz eta mezuz bete eta izatera behartu, kultura, erlijioa eta hezkuntza bezalako tresnak erabilia. Baina gorputza bakarrik doa, entzun besterik ez dugu egin behar”. ■

ETORKIZUNEKO PENTSIO SISTEMAZ BOST GALDERA (ETA ERANTZUN)

EAJk euskal Gizarte Segurantza bat edukitzeko egindako proposamenak pentsioen inguruko eztabaida ekarri du mahai gainera beste behin. Jeltzaleek onartutako dokumentuan diote bertan kudeatutako pentsio-sistema bideragarria litzatekeela, eta eredu mistoaren alde egiten dute. Betiko galderak sortu ditu gaiak, eta berriz ere agerian geratu da ororen gainetik erabaki politiko baten aurrean geundekeela.



Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

Eztabaida ez da herenegungoa. Baina EAJk Iruñean bere afiliatuekin egindako batzar orokorrean euskal Gizarte Segurantza bat sortzeko egindako proposamenak erreakzio dezente izan du, seguruenik oraingoan, besteetan ez bezala, plana aurrera nola eraman azaltzeko xehetasunetan sartu direlako Sabin Etxeko buruak. Itxaso Atutxa EBBko presidenteak bota zuen irratian: “Euskadin gai ekonomikoak kudeatu ditugunean emaitza hobeak izan dira”.

PSEk bideragarritasun faltaren mamua haizatu du berehala –EAEn eta Nafarroan saldo negatiboa dugu joan den aspaldian– eta EH Bilduk elkarlanerako deia egin du. Koalizio abertzaleak, gainera, gutxieneko pentsioa 1.080 eurora igotzeko proposamena egin du Espainiako Kongresuan, pentsiodunen plataformen aldarrikapenarekin bat eginez.

Baina nolako pentsio sistema beharko genuke etorkizunean? Hori marrazten laguntzeko hona hemen oinarritzko bost galdera eta erantzun.

1) ZEIN EGOERATAN GAUDE?

Gizarte Segurantza Gernikako Estatutuan onartua dagoen arren, eskumen hori ez da inoiz transferitu. Ondorioz, Espainiako Estatuaren “kutxa bakarra” deiturikotik jasotzen dituzte jubilatuak eta beste gizarte sektoreek euren pentsioak. Azken bederatzi urteetan EAEko eta Nafarroako kotizatzaileek kutxa horretara ekartzen dutena baino gehiago hartzen dugu bertako pentsioak ordaintzeko –Hego Euskal Herrian 660.000 pentsiodun dauden orotara–.

Defizit hori erabili ohi dute eredu zentralizatuaren aldekoek argudiatzeko euskal pentsio-sistema ez litzatekeela sostengagarria izango, denera 2.000 milioi euroko desfasea bailegoko. Haatik, egoera “koiunturala” dela uste dute jeltzaleek, eta pentsioen iraunkortasunean beste faktore batzuk daudela: lan merkatu egitura, soldataren bilakaera, eta abar. Bideragarritasunaren eztabaida horretan, LABek ere sartu du eztena: kontua ez da berezko pentsio-sistema bideragarria ote litzatekeen, baizik eta bideragarri nola egin daitekeen.

tekeen, baizik eta bideragarri nola egin daitekeen.

Espainiako pentsio-sistema eredu agortutzat jo du bertako eragile askok. Datu deigarri bat: azkeneko lau urteetan Madrilek eskua sartu du pentsioen erre-serba-funtsean eta 66.000 milioi euro aurreztuta edukitzetik 33.000 milioi izatera igaro da. Pausu honetan 2019an elzteitsua hutsa legoke. Defizitaren arazoa orokorra dela nabarmen uzten du horrek.

2) GERO ETA ZAHARRAGOAK BAGARA, NOLA EUTSI PENTSIOEI?

Populazioa zahartzen ari da, haur gutxiago jaio eta beranduago hiltzen gara. ELGE, Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen arabera 64 urtetik gorako biztanleria %28 izatetik %51ra igaroko da 2050ean. EAEn kotizatzaile bakoitzeko 1,68 pentsiodun daude eta Nafarroan estaldura 1,96koa da. ELGEren errezeta kontraesankorra da: lan merkatua are gehiago malgutu eta erretiro aurreratutak ezabatzea –PP-





Pensionistak Martxan plataformaren protesta eta 1.180 euroko gutxieneko pentsioak eskatzeko sinadura bilketa Bilbon.

ARGAZKI PRESS / M. DEL VALLE

ren lan eta pentsio erreformetan sakontzea, agidanez-.

Txanponaren beste aldeari ez zaio erreparatzen ordea. Gazteentzako lan eta soldata duinak izateko aukerak sustatuz gero, kotizazio-oinarrien batez bestekoan sumatuko litzateke, eta jaio-tze-tasan ere izango luke eraginik. Pentsioen auzia erabat lotuta dago gazteen lan-munduratzeko baldintzekin.

3) ZEINEK ORDAINDU BEHAR DITU PENSIOAK?

Gaur egun dugun sistema publikoa kontributiboa da zati handi batean. Hau da, soldata gordinetik zenbateko bat bideratzen dugu pentsioen "kutxa" hori elikatzerako, eta ordaintzen etorkizuneko kotizatuaren arabera pentsioak izango ditugu -gutxieneko eta gehienezko kopuruen barruan, noski-.

Europako hainbat herrialdetan, ordea, mekanismo misto bat dute. Hau da, pentsioen kostuaren zati bat aurrekontuen bizkar ordaintzen da; Estatuak bermatzen ditu pentsioak, ospitaleak

eta eskolak irekita egotea bermatzen duen gisan.

Sistema zergen bidez finantzatzeko aukera ere hor dago. EAJk onartu berri duen dokumentuan dio pentsio ez kontributiboak eta diru-sarrerak bermatzeko errenta, zergetatik jasotakoarekin ordainduko liratekeela.

4) PRIBATIZAZIORANTZ AL GOAZ?

Jeltzaleek beste finantzabide bat ere aurreikusi dute: prestazioak osatzea EPSVekin. Aurreikuspen sozietate horiek Euskal Autonomia Erkidegoan pisu handia dute eta milaka milioi euroko aurrezkiak biltzen dituzte. Hobariak dituztenez, askotan egon izan dira ihes fiskalaren salaketan zurrunbiloan.

Publiko-privatu aferak mesfidantza handia sortzen du, baita pentsioen gaian ere. Agian erabilera egoki batekin langileen erretiroa duintzeko balio lezakete. Esaterako, funtzionarioek badituzte euren EPSVak, Itzarri eta Elkarkidetza. Kasu zehatz honetan, negozioz kolektiboan jasota dagoenez, administrazioak zenbateko bat jarri

behar du EPSV horiek hornitzeko -ELA sindikatuak salatu izan du Eusko Jaurlaritza ez dela ekarpen horiek egiten ari-. Nolahai ere argitu beharko litzateke pentsio-publikoak murriztea ote den aurreikuspen osagarriak sustatzearen ordaina.

5) NOLAKOA BEHAR LUKE PENSIO SISTEMA JUSTU ETA SOLIDARIOAK?

Hego Euskal Herriko hamar pentsiodunetik zazpik hilean 1.000 euro baino gutxiago kobratzen du gaur egun, eta horietatik erdiak 665 euroko batez besteko pentsioa du. Etorkizuneko euskal Gizarte Segurantzak pentsio duinak eskaintzeko, zenbat behar da? Zeinek zer jarri beharko luke?

Euskal Herriko Pentsiodunen plataformak garbi du 1.080 euroko langatik behera pobrezia eta bazterkeria besterik ez dagoela. Horretarako herri-ekimen legegilea aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean, eskatuz pentsio baxuenak osatu daitezela gutxieneko horretara iritsi arte. Baina ekimena atzera bota diote EAJ, PSE eta PPren kontrako botoekin. Orain sinadurak biltzen ari dira. ■

Katu Arkonada

"KUDEAKETA EZ DA SEXIA, ERAKARGARRIAGO ZAIGU ERRESISTENTZIAREN KULTURA"

2009tik 2014ra La Pazen bizi izan da eta lan anitzak egin ditu Boliviako Gobernuan. Urte batez Mexikon egon ondotik, erreferendum kanpainarako laguntza ekartzera itzuli da Evo Moralesen Gobernura. Idatzi berri duen *Escenarios y horizontes del cambio de época en América Latina* liburua argitaratuko du Hiru argitaletxeak laster. Hainbat hedabidetan, gainera, analista politiko lanetan aritzen da.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Joanes Etxebarria

Ibilbide luzea ukan duzu Boliviara iritsi aitzin, nolakoa izan da?

Zaila da laburtzea. Ene burua definitu nezake militante internazionalista bezala. Euskal Herrian ikasi nuen hori, ezker abertzaleko militante gisa, baina baita Latinoamerikan ibilitako militante internazionalista modura ere. Kubara bidaiatu egin nuen lehen aldiz 1997an. Kubak anitz irakatsi didan bezala Venezuelak ere asko irakatsi dit 2003an izan nintzen lehen aldiaz geroztik. Boliviarekin zorretan nengoen, ezagutzen ez nuen ezkerreko aldaketa prozesu bakarra zelako. Ibilbidea laburtuz, etorri nintzen hilabete batzuk pasatzera, prozesua ezagutzeko, eta harrapatu ninduen, maitemindu nintzen.

Hemen garaipenak aipatzen dira, zure jatorrizko herrian gutxiago. Hori ere erakargarria izan al da?

Bai, baina –Arnaldo Otegiaren hitzak baliatuz– irabazteko militatzen dut, nahiz eta ezkerrean, orokorki, porro-

turen kultura daukagun. Latinoamerikako prozesu hauek irakatsi didate batek zinez nahi badu bere jendartea aldatu eta subiranotasuna berreskuratu maila guztietan, boterea hartu behar duela. Boterea abstraktua da, baina gutxienez gobernu hartu behar duzu. Gero konturatzen zara gobernu baduzula, baina ez duzula botere guztia. Horrek ekartzen du borroka latza ekonomian, eta bereziki maila kulturean. Nola eraikitzen da hegemonia? Hori da galdera. Herri batentzat proposamen alternatiboa eraikitzea, gobernu irabaztea, botere politikoa, ekonomikoa eta mediatikoa borrokatzea... hori guztia egin dute hemen, eta ni pribilegiatua sentitzen naiz prozesu honek iraun duen denbora erdian baino gehiagoz lagundu izanaz. Onartu nauteko harro sentitzeaz gain, Euskal Herrian egun batean –diferentziak diferentzia– martxan jarri beharko den prozesurako irakaspenak hartzen ari naiz hemen.

Latinoamerikaz ari zarela sarri aipatzen duzu kudeaketak higadura dakarrela. Euskal Herrian ezker abertzaleak instituzioak kudeatu ditu, han ere higadurarik izan al da?

Esan izan dut kudeaketa ez dela sexia. Nahiago dugu erresistentziaren kultura, erakargarriagoa da. Gobernuak beti sufritzen du nolabaiteko higadura. Hor Alvaro Garcia Linerak (Boliviako presidente ordea) oso ongi teorizatzen duen zerbait sartzen da jokoan: iraultzaren tentsio sortzaileak, herri barneko tentsioak aipatuz. Aterabidea bilatzen badiezu, tentsioek aurrera joaten laguntzen dizute. Tentsioetarik bat hala izendatzen du: malgutasun hegemonikoa nukleo sozialeko irmotasunaren parean. Hau da: nola garatzen duzu zure proiektua, nola barneratzen dituzu beste sektore sozialak (klase ertainak, enpresa sektoreak...) nukleo gogorrek babesten duen zure oinarritzko proiektuari kontzesio gehiegi egin gabe, nukleo hori galdu ez dezazun.



Euskal Herrian, ezker abertzale sozio-logikoa –zentzu zabalean ulertuta– krisian baldin badago ez dut uste kudeaketa arazo batengatik denik. Nahiz eta segur aski kudeaketa instituzionalean gauza batzuk gaizki egin diren, instituzioetan kudeaketa politiko ona egin da. Trantsizio une korapilatsu batean gaudela uste dut. Konfrontazio politiko-militarraren aroa ixten ari da, eta iduri zait gelditu garela kohesio elementurik gabe. Bat-batean konturatzen ari gara taktika eta estrategia desberdinak ditugula ezker abertzalearen barruan.

Hori pasa da Bolivian ere: denek etsai amankomuna zeukatenean, AEBk lagundutako eskuina alegia, konfrontazio argia zegoen eta kohesioa azkarra zen oinarri sozialean. Eskuina politikoki eta militarki garaitu zenean, 2008ko iraila eta 2009ko urtarrila artean (konstituzio berria gehiengo absolutuarekin onartu zuten), orduan hasi ziren tentsioak agertzen. Ez da gehiago proiektu bera defendatzen baizik eta korporatiboki:

meatzariak haiena eta laborariak haiena babesten hasten dira, eta gobernuaren kontrako mobilizazio azkarrak ere egin ziren. Orain konponduak dira arazoak. Estrategia eramateko modu desberdinen arteko trantsizio hori bizitzen ari gara. Arranguratzen nau, adibidez, EH Bilduko arduradun batzuk, behin bai bestean ez, EAJ limurtu nahian ibiltzen ikusteak. Katalunian, esaterako, jendarte zibiletik hain kalibre handiko dinamika abiatu zenez, burgesia txikia eta handia behartuta sentitu ziren subiranotasunaren trenera igotzera. Euskal Herrian ez dira baldintza horiek.

Bolivian beste herri batzuetan bezala, lidderraren figura azkarra da, azkarregia ere pentsa daiteke.

Latinoamerikan, azkenean, prozesu horietan guztietan lider bakarrarekiko dependentzia sortu da. Kasu argiena Venezuelakoa da, Chavezekin. Bera hil ondotik krisi handia gertatu zen. Erran gabe doa inperialismoa horretaz baliatu

“Latinoamerika da munduan neoliberalismoari alternatiba eraikitzen dion bakarra”

“Arranguratzen nau EH Bilduko arduradun batzuk EAJ limurtu nahian ibiltzen ikusteak”



Konstituzioa aldatzeko erreferenduma egin dute Bolivian. Gobernuak baietzaren aldeko kanpaina egin zuen. Irudian Evo Morales, La Paz hiriburuan egin zuten kanpainako azken ekitaldian otsailaren 17an.

zela eta Madurori galdetu zitzaien Chavez izatea, baina hark ezin du izan. Hori oso eztabaida korapilatsua da ezkerrentzat. Nire erantzun politikoki zuzena lidergo kolektiboen aldeko apustua litzateke, formakuntza politikoa beharrezkoa dela aipatzea... Eta hori guztia egia da, baina lidergo hauek agertzen direnean, bakarrak dira munduan: Fidel Kuban, Chavez Venezuelen eta Evo Bolivian. Evo bezalako liderrak ere behar ditugu, borroka guztiak sintetizatzeko.

Euskal Herrian ere gisa horretako lider bat izatea ona litzateke?

Badago bat. Arnaldo Otegi kartzelatik atera dadin desiratzen ari gara. Zergatik? Nahiz eta pentsa dezakegun zuzendaritza kolektiboa dela, Otegi frogatu du borrokak eta erresistentziak sintetizatzeko gaitasuna duen liderra dela. Arnaldo Otegi entzutean ordezkatua sentitzen zara. Ez du berak bakarrik aterabiderik bilatuko, baina une jakin batean dispositiboa da, klik egiten laguntzen duena, eta zerumuga edo proiektu bat oinarri sozial batekin sintonizatzen duena.

Ezker Abertzaleak Latinoamerikako prozesuetatik gehiago ikasi beharko luke?

Latinoamerikako teoriko handienetarikoa batek, Carlos Mariateguik, beti zioen proiektu sozialista propioak sortu behar direla, sorkuntza heroikoak izan behar direla eta ez kopiak, ez kalkoak.

“Batzuek Europa iparraldeko herrietako sozialdemokraziari begiratzeko daukaten joera akats handia da”

“Sozialdemokrazia proiektu politiko gisa hil da, nahiz eta Podemos balore horien salbatzeko saiakera bat izan”

“Ez dugu sortu ezinbestekoa den eraldaketa kulturala eta kapitalismoak segitzen du hegemonia ukaiten maila kulturean, Latinoamerikan eta mundu osoan”

Hori erraten zuen Latinoamerika beti Europara begira zegoenean, eta begira nola dagoen Europa orain!

Ezker Abertzaleak uste dut sortez kultura politiko heterodoxoa ukan duela, marxismotik zein askapen nazionalerako mugimenduetatik edan izan duelako. Hori aberastasuna da egungo egoerari aurre egiteko. Batzuek sozialdemokrazia europarrari (Europako iparraldeko herrietakoa) begiratzeko daukaten joera akats handia da. Beti ikas daiteke denetatik, Europako iparraldeko ezkerretik barne, baina honezkero sozialdemokrazia proiektu politiko gisa hil da, nahiz eta Podemos balore horien salbatzeko saiakera bat izan. Neoliberalismoari alternatiba eraikitzen dion munduko eskualde bakarra Latinoamerika da. Hemen eztabaidatzen da hainbeste interesatzen zaigun subiranotasunaz eta demokraziaz, baita demokrazia liberal eta burgesak ezarri zigun tranpatik harago dauden mugez ere. Gure proiektua eraikitzeko, asko dugu ikasteko, kopia izan gabe.

Gorakadan izan diren gobernu progresistak atzera doazela aipatzen da Argentinan edo Venezuelen jasandako porrot elektoralengatik. Krisian daudela uste duzu?

Marxek erraten zuen historia uhinak bezala mugitzen dela, aitzinatzeak eta atzeratzeak daudela. Egia da gorantz joaten ari girela, eta bat-batean atzerapenean sartu garelara, Chavezen heriotzatik hona. Venezuela baino gehiago arranguratzen nau Argentinak, 1998az geroztik galtzen den lehen gobernu delako. Gainera horri gehitu zaio petrolioaren prezioa ikaragarri jaitsi dela eta lehengaien salmenta oinarri duten ekonomiek sufritu dutela.

Subiranotasuna berreskuratu eta aberastasunak banatzeko gai izan den agertoki post-neoliberalera eraiki dugun arren, ez dugu sortu ezinbestekoa den eraldaketa kulturala. Onartu behar da kapitalismoak segitzen duela hegemonia ukaiten maila kulturean, Latinoamerikan eta mundu osoan. Orain erronka berriak izaten dira. Margoketa famatu batek zera dio: “Erantzunak geneuzkanean galderak aldatu zizkiguten”. Eta hala gertatu zaigu. Latinoamerikan proiektua eguneratzea falta zaigu, berriz ere xarmatu behar direlako orain bozka eskubidea dutenak; bozkatzeko ari baitira neoliberalismoa ezagutu ez duten belaunaldiak. ■

JIU-JITSU EGITEN ZUTEN SUFRAGISTAK



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Londres, 1910eko azaroaren 18a. Parlamentuaren kanpoaldean 300 sufragista inguruk polizien harresiarekin egin zuten topo. Poliziak askoz gehiago ziren eta jende artean zeuden hainbat gizonezko zibilen laguntzarekin, emakumeei gogor eraso zieten. Bi emakume hil zituzten, beste asko zauritu eta ehundik gora atxilotu. Emakumeen botoaren aldeko mugimenduak polizia eta gobernu zituen etsai, indarkeriak gero eta protagonismo handiagoa zuen borroka hartan, eta emakumeek erantzuteko prest egon behar zuten.

Edith Garrud (1872-1971) urte batzuk lehenago hasi zen jiu-jitsu borrokarako japoniar artea praktikatzeko, William senarraren eskutik, eta 1910erako jarduera hura emakumeei irakasten hasia zen. Urte hartan bertan *Votes for Women* aldizkarian idatzitako artikulu batean zioen handik aurrera arerio indartsua izango zutela eta jiu-jitsua oso egokia zela poliziariei aurre egiteko. Garrudek berak 1,50 metro besterik ez zuen eta, garai hartan, Londresko polizia izateko gutxieneko altuera 1,78koa zen. Jiu-jitsua, hain zuzen, erasotzailearen indarra haien kontra baliatzean datza.

Prensa fenomenoaren berri jasotzen hasi zen eta berehala "sufrajitsu" hitza erabiltzen hasi ziren beren burua defendatzeko japoniar artea erabiltzen zuten sufragistak izendatzeko.



ARTHUR WALLIS MILLS

"Jiu-jitsu zekien sufragista. Atxiloteta" dio 1910eko ekainean 'Punch' eta 'The Wanganui Chronicle' agerkarietan argitaratu zen komikiak. Eskuinean ageri den emakumea Edith Garrud "sufrajitsua" da.

Emakumeen eta poliziaren arteko liskarrak areagotu ahala, atxilotetek eta kartzela zigorrek ere gora egin zuten. Sufragista espetxeratuak gose grebak egiten hasi ziren, eta gobernuak Presoen Legea –edo Katuaren eta Saguaren Legea, izen horrekin egin baitzen ezaguna– onartu zuen 1913an, martiririk nahi ez zuelako: gose greban zeuden presoak askatuko zituzten, osasuna berreskuratutakoan berriro kartzelaratzeko.

Horixe egin zuten Emmline Pankhurst mugimenduko buru nagusietakoarekin.

Sufragistek ez zuten Pankhurst berriro atxilotzerik nahi eta Edith Garrudek 30 sufrajitsuz osatutako talde berezia osatu zuen buruzagia babesteko, *Bodyguard* (bizkartzain) izenekoa.

1914ko hasieran, Pankhurst Glasgora joan zen 4.000 pertsonaren aurrean hitzaldi bat ematera. Poliziak bizkartzainak baino askoz gehiago ziren eta borroka hura irabazi zuten. Baina eduki kosta zitzairen 30 sufrajitsuak mendean hartzea. ■

Zergatik erabiltzen dira korapiloak itsasontzien abiadura neurtzeko?

Antzina, hurbileko erreferentzia fisikorik gabe, zaila zen itsasoan abiadura neurtzea. Prozesua ontziaren popatik soka bat lotuta zuen enbor bat edo egur zati bat botata hasten zen. Enborra ur azalean flotatzen eta geldirik geratu arte itxaroten zuten, eta ondoren hasten ziren itsasontzia egurretik zer abiaduratan aldentzen ziren neurtzen.

Distantzia kalkulatzeko, sokari korapiloak egiten zizkieten, batetik bestera 47 oineko gutxi gorabeherako tartek utziz, eta korapiloak kontaktzen zituzten soka ontzitik irten ahala.

Baina abiadura neurtzeko, distantzia unitateez gain, denbora unitateak behar zituzten, eta harea ordulariak –minutu erdi inguruak– baliatu zituzten horretarako. Beraz, bi lagun behar ziren lan

horretan: bata erlojua iraultzeko eta bestea korapiloak kontatzeko. Eta erabilitako tresnak oso zehatzak ez zirenez, emaitzak ere hala-moduzkoak izan ohi ziren.

Dena den, denboraren eta korapiloen arteko proportzioa doitu zuen joan zen, orduko itsas miliekin bat egin arte, eta egun, sateliteen garaian, oraindik ere korapiloak dira itsasoan abiadura neurtzeko erabilitako unitateak. ■

Irozgarritzea



Jakoba Errekondo

Posta elektronikoa:
mandio@zerain.eus

Zuhaitza landatu berria da. Berarekin batera aldamenean sartu dugun hesolari lotu eta alde ederrean itsatsiko da. Zazpi haizeekin jolasean eta ekaitzekin dantzan ikasten duen artean, sustraiek, hazi eta hazi, eutsi eta eutsi, luze-zabal-sakonean ederki miatuko dituzte inguruak bizitzeko hazkurri bila. Lurrari lotzen eta atxikitzen den artean, hesolaren lana ez da nolanahikoa. Zenbaitek estu-estu lotzen diote zuhaitza: okerreko hutsegitea. Lotua baina mugitzeko adina lasai izan behar du. Hara-honako horrek sustraitzera lagunduko du, baita etorkizunean bakarrik bizitzera ohitzera ere. Baina lotua, sendo errotu arte eusteko, alegia. Behin baino gehiagotan, askotan, ikusi izan dut euskailu lanetarako jarritako hesola bera itsasten eta eutsi beharreko zuhaitza barregarri utziz, bera baino indar eta kermen gehiagoz hazten. Sahatsa (*Salix sp.*), platanoa (*Platanus x hispanica*) eta sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*) iaioak dira egur hutsetik erroak egin eta itsasten, apareju ederrak!



JAKOBA ERREKONDO

Zuhaitzen batek, zuren batek, egurren batek emango du hesola. Baita fruituak bildu asmoz moiltzeko joko duen haga ere. Eta baldoa, eta taketa, eta pazota, eta makila, eta estaka, eta parda, eta zurkaitza, eta parra, eta barda, eta masteleroa, eta tantaia, eta hestanga, eta paldoa, eta astamakila, eta habea, eta estrongoa, eta baranda, eta ziria, eta masta, eta apeoa. Eta irozgarri duen edozein, ostiko edo zutiko.

Zuhaitzak eta arbolak gaztetan behar dute hesola laguntzailea, baina baita zahartzaroan ere. Zuhaitz zahar handi ongi zainduaren adar luzeei eusteko agaiak jartzen zaizkio. Gure moduan, zahartzean ere umetu egingo dira, nonbait... Mutur biko agaia, txardengoa (xardangoa, sardangoa...) izango da zuhaitzak zahartzaroan izango duen makulu onena. Agaia maite du, baita ere, fruituz mukurudatorren sasoian fruitu-arbolak. Fruitu koxkorak hazten diren eran adarrak makurtzen dira, eta, gutxien uste denean, ustel: krakateko bat eta urtetako arbola elbarrituta. Zut eta gora ba agaiak! ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Kaixo Jakoba. Zuhaitzak aldatzeko sasoia dela irakurri berri dizut; nire limoiondoa lekuz aldatzeko ere garai ona al da? Ontzi handi xamar batean daukat, baina haizeak etengabe botatzen zuela-eta, Gabonez geroztik paretaren kontra daukat estu-estu. Ez dut lurrik baina eskatuko nuke lur pusketa bat hura landatzeko. Zer iruditzen zaizu?

Ana Aizpurua (Aginaga)

Kaixo Ana. Zuhaitzak eta fruitu-arbolak aldatzeko sasoian gaude, bai. Negu partean hostoak galdu eta soiltzen direnak, aurtan dugun eguraldia dela-eta, egokiena otsail amaierako ilbeheran egitea litzakete, otsailaren 18tik martxoaren 3ra.



ANNA-CC BY

Aldiz, negu partean hostajeari eutsi eta jantzita jarraitzen dutenak, zure limoiondoaren gisan, udaberri aldera aldatzen dira. Aurtan apirileko ilbeheran egitea gomendatzen dizut, 13tik 26ra bitartean.

Limoi on!



LA HUERTAKA

Hiriko grisaren artean espazio berdeak sortzen



Garazi Zabaleta
@tirikitran

“Hiri erabat industrializatutzat –fabrikak eta labe garaiak– hartu izan da Barakaldo urteetan, baina benetan oso zabala da eta landa eremu garrantzitsua ere izan du”. Alfredo Rodriguez Barakaldoko Ekologistak Martxaneko kidearen hitzak dira. Eremu berdeak galtzen ari zirela ikusita, 2013an sortu zuten Barakaldoko herri baratzeen proiektua.

Urte hartan, naturaren garapenean interesa zuten bizilagun ugari elkartu eta formazio saioak egiten hasi ziren EHNE sindikatuarekin: hausnartzen hasi ziren erabilpenik gabeko espazioen berreskurapenaz, naturaren birsorkuntzaz hirian edota lurrari eraikuntzarako ez den erabilpena emateaz, beti ere elikadura burujabetzaren ideia erdigunean jarrita. Hasieratik jende anitza bildu zen proiektuan, Ekologistak Martxanen babesarekin eta Barakaldoko EKOEtxea erreferentziatut hartuta.

Hiriari arnas ematen dion espazio berdea

Herri jakintza berreskuratzea eta hirian naturarekin harremana bultzatzea izan dira lehen helburuak proiektuko kideentzat, baita bazterketa jasan duen jendeari bestelako aukerak ematea ere: “10.000 langabe baino gehiago daude Barakaldon. Aukera ezin hobea dugu jendeari ilusioa pizteko alternatibak landuz”. Eta nola hobe naturarekin harremanak berreskuratuz eta mendeetako jakinduria jasoz baino?

Hasieran bost pertsonako taldea zen. Egun, ordea, hogeit bat pertsona dabilta aktiboki proiektuan, baratzean eta asteroko bileretan parte hartzen.

Ekaitzaren ostean, barea

2014an sartu ziren egun La Huertaka den Lutxanako lurretan. Lehenagotik hainbat eskaera formal egin zizkioten Udalarari, baina erantzun guztiak ezezkoak zirela ikusita, abandonatutako SAREB bankuaren lurretan sartzea erabaki zuten. “Hasieratik adierazi genuen adostasunera iristeko prestutasuna, eta handik mugitzeko eskatuz gero alde egingo genuela ere azaldu genuen”, dio Rodriguezek.

Urte bereko abenduan, ordea, eta inork beraiekin hitz egin gabe, Barakaldoko Udalaren hirigintza enpresa Eretzak eta SAREBek salaketa jarri zien lurren okupazio eta usurpazioagatik: “Ertzaintza zuzenean Ekobarakako egoitzan azaldu zen eta erantzule bat eskatu zuen”. Javier Vazquez Ekologistak Martxaneko arduradunak eman zuen bere izena.

Urtarrilean izan zuen epaiketa Vazquezek. Salaketaren egileak ez ziren epaiketara agertu ere egin, eta hiru aste beranduago jaso dute epaia baratzegileek: kasua artxibatu da. Badirudi lasaixeago har dezaketela arnas La Huertakako kideek, eta jasotako babes zabalaren ostean lanean gogotsu jarraituko dutela argi du Rodriguezek: agroekologiaz elikadura subiranotasunerantz pausoak ematen, “mundu guztiak bere elikagaiak hazteko aukera izan dezan!”. ■

BIZI BARATZEA

**Gure kultura
iraultzen ari den liburua**

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

[@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)



Eskaerak:

943 371 545

www.argia.eus/denda

Salneurria: 23 €

Harpideentzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIAK

Martxoak 16

Alegia

Institutuan, 10:40an.

Martxoak 17

Segura

19:00etan, kultur etxean.

Martxoak 19

Bedarona (Ea)

Jakoba Errekondo bertatik arituko da Euskadi Irratiko Landaberri saioan; ondoren solasaldia. 10:30ean, lekua zehazteke.

Martxoak 22

Goiatz

Dendale ostatuan, 19:00etan.

Apirilak 8

Ezkio-Itsaso

Lekua eta ordua zehazteke.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitetz gurekin harremanetan:

sustapena@argia.com

📞 943 371 545

BI SAIL BERRI ASTEKARIAN

Gorputz eta arima? Nahiago gorputz eta lur



Itsaso Zubiria Etxebarria
@itsasozubiria

Bizpahiru agur izan ditugu sail honek bizirik daramatzan ia lau hilabeteetan, baina ongi etorriak ere ospatu behar direla eta bi atal berri aurkeztu nahi dizkizut gaur, irakurle.

“Zeri kenduko diote lekua?” etorriko zitzaizun burura akaso, erdi asaldatuta, zure asteroko artikulu kutuna baztertu dezaketela pentsatuta. Tira, Jakoba maite baduzu, zatitxo bat kenduko zaio; baina lasai, astero jarraituko du Euskal Herria bere gomendioekin iraultzen. Kentzea baino osatzea da helburua. *Bizi Baratzea* liburuaren inguruko irakurleen, komikigileen... aipua izango dira kenduko direnak; Jakoba, *best seller* bat da, baina irakurleek eta liburuari buruz esandakoek bukatu behar zuten noizbait... Baina badirudi Euskal Herriko herri kopuruak ez duela mugarik, eta liburuaren aurkezpen agendaren berri ematen jarraituko dugu astero.

Gaiari beste zirrikitu batzuetatik begiratzeko egin da tokia. Landareak oinarri harturik elikadura burujabetzaz, lurraz, haziez, eta askoz gehiagoz aritzera datorkigu Garazi Zabaleta. ARGIAren balore garrantzitsuenetakoaren, elikadura subirautearen muinean kokatu nahi da asteroko maiztasunez argitaratuko den atal berria. *Bizi Baratzeak* bide berri eta sendoa ireki du, eta hurrengo pausoak hortik joango dira.




Gorputza

“Gorputza” atala izango da bigarren nobedadea, Ainhua Mariezkurrenak bideratua. Gorputzaz hitz egitean askotan osasunera mugatzen gara, ia beti negatiboki edo gaixotasunei zuzenduta, eta gure osasuna medikuntzari delegatzeko ohitura daukagu. Hileroko sail honetan gorputza bere osotasunean ezagutuko dugu, negatiboki eta positiboki. Nork bere gorputzaren kontzientzia eta jabetza hartzea da helburua, gure burua, hezur, azal, emozio ezagutzea. Zentzumenez hitz egingo digu Mariezkurrenak, estresaz, dentistez (hortzetako aparatua behar al dugu denok? Guztiok hortzak berdin izan behar al ditugu?), haurren hazte-prozesuaz (ume guztiek adin berean altuera eta pisu bera izan behar al dute?)... Gure gorputzak bizi estiloari lotuta daude. ■

“ARGIA astekaria zaindu behar dugun harribitxi bat da, ‘berehalako’ prentsa arruntaren joeratik at gogoeta ekartzen duten gaiak aipatzen dituelako. Eta ez da gutxi! Mundu hau ulertu eta are, aldatu nahi badugu, oso beharrezkoa da bat-bateko erreakzioetarik urrunago joatea. Ez daiteke gogoeta sakon bat elikatu bat batekoak sortu erreakzio eta emozio metarekin bakarrik. Harribitxi bat, lortzen baitu hain erroturik dagoen ‘ardijoeratik’ ateratzea. Eta horrek du bermatzen hain beharrezkoa dugun eta preziorik ez duen askatasuna!”

Iker Eloseggi, ARGIAkoa



Hiru Damatxoak kotxean. Ezkerrean, Unai Gaztelumendi, KUPen jertsea jantzita. Hara non dabilen KUP (Kamikaze Ulerkor Pantumakazaleak), Beranduegi orriak Espainiako hauteskunde orokorrerako proposatu zuen zerrenda.

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00ean.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Euskalerrria Irratia:**
Asteartetan, 14:15ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiralean, 10:30ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Asteartetan, 18:00ean.

ZERGATIK EZ EUSKARAZ

LO ORDUAK KENDUKO DIZKIZUN TELESAILA?

Goenkale osteko lehenengo urtea hasi berritan, euskarazko telesailen uza aspaldiko urriena da. Gutxi balitz, azken apustuek oro har ez dute izan harrera onik. Noiz eta nazioarteko ekoizpenek inoiz baino txalo eta ikusle gehiago pilatzen dituztenean. ETB al da erantzule bakarra? Audientzia datuak eta baliabide falta badira nahikoa aitzakia?



Lander Arretxea

@larretxea

2016ko otsaila amaiera denean, bakarra da telebistan astez aste jarrai daitekeen euskarazko telesaila. Urrun geratu dira ETBn hiru telesailaldi berean ematen zireneko garaiak. Urtarrilean utzi zioten azkenaurreko apustua (*Aitaren Etxea*) emititzeari, eta otsailaren amaieran hasi berri dira *Eskamak kentzen* eskaintzen. Lehenengo denboraldi osoa aurrez grabatu dute, eta audientziek esango dute bigarrena egingo den ala ez. Gaur gaurkoz, hortaz, ez dago martxan telebistarako telesailen grabaziorik.

Zulo askoko hutsunea

Ez dira gutxi hutsune hori kezka salatu dutenak. *Berria* egunkarian telebista kritika egiten duen Leire Palacios kazetariak *Goenkalerekin* batera telesail bat baino gehiago galdu dela dio. "Haren inguruan eraikitako kultura da galdu duguna: hizkuntza aberasteko corpusa, aktore eskola, gidoilari eskola, errealizazio eskola eta abar". Horri guztiari,



"Eskamak kentzen" telesaila da ETBk fikzioaren alde egin duen azken apustua. Lehen denboraldia errodatuta dago. Hortaz, ez dago une honetan telesail berriak grabazio prozesuan euskaraz.

noski, lanpostua galdu duten dozenaka profesionalak gehitu behar zaizkio.

Ez da falta, Palaciosek esandakoen bidez, gaiari soziolinguistikaren ertetik begiratu dionik. Hala zioen *Berrian Goenkaleko* gidoi arduradun izan den Jose Luis Aranguren "Txiliku"-k: "Euskararen koloreak fikzioak ematen ditu. Fikzioa kentzen badiogu hizkuntzari, akabo".

Lander Garro idazle eta gidoilariari ere kezkarria iruditzen zaio egungo egoera, are gehiago telesailekiko zaletasuna ikaragarri handitu dela kontuan hartuta. "Jendeak, ezinbestean, hizkuntza arrotzera jo behar du sistematikoki, bere zaletasuna asetzeko. Horri gehitu telesailek munduan barna izan duten jauzi kualitatiboa, bai estetikoki eta bai kontzeptualki. Eta geurean, aldiz..."

ETB erantzule nagusi?

Urtzi Urkizu *Berriako* kazetariak oso gertutik jarraitzen ditu euskal telebista publikoaren gorabeherak. Ikus-entzuleei askotariko edukiak –baita telesailak ere– eskaintzea betebeharrak duela dio. "ETBren Legeak dio euskara eta euskal kulturaren sustapena duela helburu, eta fikzioa euskal kulturaren hanka funtsezkoetako bat da". ETBren marka oso ahul dagoela iruditzen zaio, eta hala izanik, kalitatezko telesailak emateak onura ekarriko liokeela.

Lan horretan, audientzietan gutxiago begiratu beharko litzaiekeela dio, eta gehiago, aldiz, eskaintzen den produktuari. "Gerta daiteke telebistako lehen emanaldian telesail batek ikusle datu oso handia ez ematea, baina gero sarean asko zabaltzea. Pazientzia gehiago izatea ez litzateke txarra izango".



Audientzia kaskarrez gain, kostu altua ere aipatzen da maiz telesail gehiago ez ekoizteko motibo gisa. Telebista egitea garestia dela aitortuta ere, Urkizuri ez zaio iruditzen telesailen gabezia azaltzeko nahikoa arrazoi denik. “Dirua nola kudeatu da gakoa: ETB2 kateko saio batzuetarako gastatzen den diruarekin euskarazko telesail gehiago egin daitezke”.

ETBz gain, Hamaika Telebista ere helitzen da Euskal Herriko txoko gehientzuenetara, baina honek ere ez du telesailik programazioan. Horretarako behar adina baliabide ekonomiko ez dutela diote Iñaki Uriak zuzendariak eta Inaxio Esnaola kazetariak. “Baliabide falta, borondate handiko lanak bakarrik gaintitu dezake”. Uriaren iritziz, ETB interpelatu behar da: “Ikus-entzunezkoen motore eta traktore behar zuena, aingura bihurtuta dago”.

Urkizuk ordea, ez du uste den-dena ETBren esku utzi behar denik: “Ardura partekatua da. Adibidez, erakunde publikoetatik lehiaketak edo proiektuak antolatu daitezke sortzaileek fikziozko produktu berriak gara ditzaten”.

» **GAIZKA IZAGIRRE:**
“Anbizio gehiago behar dugu, ez gara uste dugun bezain txikiak”

» **LEIRE PALACIOS:**
“Abiapuntua da kontua: ikuslea aberasteko kapaza den produktua egitea den helburua, edo datu onargarriak lortzen dituen telesail enkistatua”

» **LANDER GARRO:**
“Hemen gidoilari on askorik ez dago”

Frankismoan girotutako “Aitaren etxea” telesailak ez zuen emaitza onik eman.

Epokakoa beharrean, garaikoa

Euskarazko fikzioaren osasuna epaitzeko martxan dagoen telesail kopurua bada kontuan hartu beharreko adierazle bat, ez bakarria ordea. Mamiari begiratuta ere handia da saltoa nazioarteko telesailen eta euskarazkoen artean. Zein izan zen hurrengo kapitulua ikusteko irrikaz, loari orduak kentzera behartu zintuen azken euskal telesaila? Edo gure gizartearen alde ilunenak erakutsiz deseroso sentiarazi zintuena?

Nazioarteko telesailetan aditua den Gaizka Izagirre ARGIAko blogariak uste du euskal ekoizpenek ez dutela maila ematen Euskal Herritik kanpo egiten denarekin alderatuz gero. “Baliabide urriak izateak ez du esan nahi arriskatu behar ez garenik. Gure errealitatearen zorne guzti hori atera eta istorio ausartak jorratzea da gakoa”. Umorea eta gatazka historikoa utzi eta beste ildo batzuk lantzeko garaia dela dio.

INSPIRAZIOA NON AURKITU

Dena asmatua omen dago, eta hori horrela bada, ez da gutxi nazioartera begira jarri eta ongi kopiatzen jakitea. Film luze konplexueneren pareko aurrekontuarekin eta AEBetan ekoizten dira sona handieneko telesailak: *Breaking Bad*, *The Wire*, *House of Cards*... Baina Europan ere badira hona ekartzeko modukoak diren joera eta adibide egingarriak. Hala uste du Gaizka Izagirrek. Britainia Handian esaterako gidoi finko batetik abiatuta kapitulu gutxi batzuek osatutako "miniserie"-ek duten indarra azpimarratu du. Herrialde nordikoetako ekoizpenak ere aintzat hartzekoak iruditzen zaizkio. Bi ezaugarri dituzte: gizarte kritika ziztatzaila eta sakonki landutako pertsonaiak.

Estatuak ez duelako eta baliabide kopuruari erreparatuta, Kataluniakoa da akaso erreferentzia alderagarria. Bertan, katalanez eta istorio oso erakargarriak kontatuz, *Cities* edo *Polseres vermelles*-en gisako telesailak arrakasta nabarmena lortu dutela dio Izagirrek. Azken horretan oinarrituta Steven Spielberg ekoizle duen *Red Band Society* egokitzapena egin dute AEBetan. "Zergatik sortzen du barregura hori bera euskal telesail batekin gerta litekeela pentsatze hutsak? Anbizio gehiago izan behar dugu, ez gara uste degun bezain txikiak".

Uste berekoa da Lander Garro, eta alde ekonomikotik begiratuta ere zentzuzkoena dela uste du: "Gakoa ideietan inbertitzea da, hots, gidoian, eta lehenestea planteamendu aldetik sinpleak diren istorioak, *atrezzo* edo jantzitegi aldetik galera handiak ekarriko ez dituztenak. Ni EITBren zuzendaritzan barenengo, ez nuke *epokako* telesail bakarra ere egingo".

Leire Palaciosi ordea ez zaio iruditzen memoria historikoan eragin dezakeen telesaila derrigor gatzgabea edo ausardiari gabekoa denik. "Kontua da, abiapuntua zer parametroren arabera erakitzen den; arrakalatu, ezinegona sortu eta ikuslea nolabait aberasteko kapaz den produktua egitea ote den helburua, edo datu onargarriak lortzen dituen



Kataluniakoa da akaso erreferentzia adierazgarria: "Polseres vermelles" telesailak lortu du mugak gainditu eta AEBetara iristea, Steven Spielberg ekoizle duen egokitzapenaren bidez.

telesail enkistatu eta merkea ekoiztea. Azken apustuarekin (*Aitaren Etxea*) tamalez, ez da ez bata ez bestea lortu".

Web-serieak eta lan amateurraren ajeak

Ohiko telebista kateen logikatik kanpo ekoizten diren telesailak ere badira, eta tartean, Youtube edo antzekoen bidez zabaltzeko asmoz egindako web-serieak. Lagunartean egindakoetatik hasi eta aktore ezagunak osatutakoetaraino, aukera eta mota askotako adibideak daude sarean. Haietako batzuek, oso baliabide gutxirekin, milioika lagunengana iristea lortu dute. Hori da Sevillako auzo asmatu batean gertatutakoak kontatzen dituen *Malviviendoren* kasua. Lehenengo kapitulua 40 euroko aurrekontuarekin osatu zuten, eta izandako arrakastaren ostean, jatorriz sarerako egindako telesailari hainbat telebista katetan egin diote tokia.

Euskarazko web-serie bat ere bada martxan: Aner Ansorenak zuzentzen duen *Deus ez da perfektua*. Egungo gazte estereotipo zenbait muturrera eramanez umorez kontatzen ditu herri bateko gorabeherak. Urtzi Urkizuren ustez, halako gehiago behar genituzke. "Ez dakit zergatik ez diren gehiago egiten, sortzaileen ardura ere bada proiektu fresko eta berritzaileak sareratzea". Gaizka Izagirrek ere horretarako bitartekoak badaudela dio: "Gaur egun ikusteko moduko ekoizpen bat diru gutxirekin egitea

posible da, doako aplikazioak badaudelako eta merkatuan kamera merke xamarak aurki daitezkeelako".

Garrok ordea, amateurismoa beti txarra dela dio, eguneroko bizitza oso garestia delako. "Ekuazioa oso sinplea da, bizi nahi baduzu, diru sarreraren bat behar duzu. Nik badakit euskal munduan halako ekimen bat proposatzen baduzu denak etorriko zaizkizula txaloka eta bizkarrekoak emanez. Zuk izango duzu haien txalo gozoa, baina hozkailua hutsik". Zentzu horretan, zaila ikusten du web-serieak egitea. "Beste kontu bat da bete-betean gidoiarekin asmatzea eta Australiako telebistak erosi nahi izatea. Baina hemen gidoilari on askorik ez dago, eta normala da: harrobia deitzen duten hori Maria Luisaren istorioak kontatzea izan da-eta". ■



PLAZIDA OTAÑO

ETXEA PLAZA ZENeko BERTSOLARIA

Garai bateko bertsolarien eskola, taberna. Hala esan ohi dugu. Sagardotegia, hobe! Zizurkilgo otañotarrek erakusten digute, ordea, etxean egiten zela egunerokoan bertsotan. Ere muhurtatua, eta hor emakumeak ere aritzen zirela, normal-normal. Hortik Plazida Otañoren bi bertso indartsu iragazi dira memoria kolektibora. Baina “plaza publikoa”ren ikuspegi murriztarekin, gure begiradak emakume hauek guztiak desterratu ditu Bertsolari izenetik. Eta orain datoz lanak, bertsolari haien berri jakiteko grina piztu zaigunean, Zizurkilen martxoaren 3an egingo den *Plazidatik plazara* hitzaldia horren adibide. Bertsotan egiten zuen emakumerik ezagutu baduzu (etxean, zergatik ez?) deitu ARGIAra lehenbailehen (943-371545), izen eta bertso hauek berreskuratzeko erlojuaren kontrako proba galtzeaz gara-eta.



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

ARGAZKIAK:

OTAÑO ETA BERE INGURUA I, AUSPOA

Egun batean, Txirrita Zizurkilera joan eta Plazida Otaño ikusi zuen, zelaian pagotxa ebakitzen ari zela. Galdetu zion:

– Aita non da? [Joxe Bernardo Otaño bertsolariagatik]

– Hor da nonbait ere, etxe aldean.

Eta bertsoa bota zion Txirritak Plazidari:

*Gauz bat esango dizut
modu ondraduan,
noski ez naiz hasiko
hemen endreduan.
Nonbait egongo zara
aldarte beruan,
gaur horla zabiltzanean
udako beruan,
ez da atsegin izango
zure inguruan.*

Plazida Otañok erantzun hau eman zion:

*Arrazoi horrek badu
bere parezera,
konprenituko dezu
mutila bazera.
Udarako beroaz
kexatzen al zera?
Lana hortan badezu
egiten atzera,
fraide sartu zintezke
komentu batera.*

Auspoa saileko Otaño eta bere ingurua I liburuan kontatua, hona hemen, eza-gutzen den emakumeen lehen bat-bateko bertsoa, gaia zer eta sexua duena (mito bat gutxiago aurrerantzean). Maila

honetako bat-bateko bertsoa nori eta bertso munduan ospe handikoa zen Txirritari erantzunaz botatzeko, bertsolaria behar zuen. Jarduten zena. Eta baietz, etxean egunerokoan aritzen zirela kontatzen du Auspoako liburuan Plazidaren ahizpa Adrianak: “[gure aita Jose Bernardok] Gehienez bere semeren bat edo alabaren bat izaten zian lagun egiteko, eta bakarrik ere kantatzen zian hark, etxean edo familian. Hari ez zitzaion hori [bertsotan egitea] kentzerik”.

Ettxeko jardun horretan bota zuen Plazidak, ezagutzen zaion beste bertsoa: jai-bazkalondo batez, Errekaldeko sukaldean bertsotan ari omen ziren Joxe Bernardo eta Plazida. Plazidak bere aitari bertso batean hau esan zion: edadez



Ezkerrean Juana Mikaela Otaño Lasa eta eskuinean Plazida Otaño Odriozola, izeba-ilobak. Juana Mikaelak ere bertso zahar pila bat zekizkien, eta iloba Pedro Marirenak kantatzen zituenean begiak busti egiten omen zitzaizkion.

osatzen ari zela eta ezkontzeko asmoa zuela, eta beretzat dotetxoa preparatzen hasteko alegia. Jose Bernardok erantzun:

*Ezkondut behar dunala,
hoi den balorea!
Hamazortzi urte den
hire edadea.
Pikara, gaizki hazi,
lotsarik gabea,
hik aberastuko naun
lehen banaiz pobrea.*


Plazidak aitari osterat:

*Aita, zahartu ta gero
garai hobea ezta,
neska gazteak ere
badu bere kezka;
ilea zuriturik,
nobiorik ez-ta,
orduaz alferrik da
soinua ta festa.*

PLAZIDA OTAÑO ODRIOZOLA

1867an, Zizurkilgo Errekalde base-
rrian jaioa. 1886an Donostiara joan
zen bizitzera (Peñaflorida kalea, 12)
pare bat urtez, eta neskame lanetan
aritu zen. 1891n Amasako Joxe Migel
Zalduarekin ezkondu eta Zizurkilgo
Benta etxean jarri ziren bizitzen (Elba-
rreanean, Azken Portu parean). Alaba
bat izan zuten: Klara. 1954an hil zen.

BERTSOLARI FAMILIA



Plazida Otaño Odriozola eta Pedro Mari Otaño Balerdi (bertsolari eta bertso jartzaille trebea), lehengusuak ziren.

Plazidaren aita, Joxe Bernardo Otaño Odriozola bera bertsolari ezaguna zen. Aitaren aldetik, aitona bera bertsolari handia zen, Pedro Mari Otaño Tapia, Errekalde Zaharra, edo Baria esaten ziotena (1803an Larraulgo Larrunbide baserrian jaioa).

Plazidarekin batera, gertueneko familian beste emakume hauen izenak ageri dira nolabait bertsoei lotuta: Adriana Otaño Odriozola (ahizpa), Argentinara joandako Mikela Otaño Odriozola (lehengusua, Pedro Mari Otañoaren arreba), Juana Bautista Barriola Arregi (izeba) eta Maria Mikaela Lasa Roteta (amona).

Otañoen omenaldian kantari

“Plaza” esaten zaion horretan (gizonen plazan), behin entzun zuten zizurkildarrek Plazida kantuan, 84 urte zituela: Pedro Mari Otañori Zizurkilen egin zitzaion lehen omenaldian, 1950ean. Goizean ekitaldi solemnea egin zitzaion, eta Plaza-Etxeberrin izan zen bazkaria. Bazkalondo hartan Plazidak kantatu zituen Pedro Mari Otañok (lehengusuak) Argentinatik bigarren aldiz etorritakoan (1880an) Errekalde baserrira joan eta

bere osaba Joxe Bernardorekin (Plazidaren aitarekin) egin zuen saioa. Plazida izan zen Pedro Mari etorri zenean trenera bila joan zitzaiona eta beraz, ziurrenik bertan izango zen osaba-ilobek etxeko ateaz alde banatara saioa egin zutenean.

Gizonen bertsoetan aipatua

“Izaeraz, bertsolari kasta” halaxe deskribatu digu Teodoro Mujika Zizurkilgo bertsozaleak Plazida. Berak mutil kozkorretan ezagutu zuen 80 urteko emakumea.

Beharbada umorea jartzeko izaera hori zuelako, beharbada bertsoan eurekin zirikan arituko zelako, edo auskalo zergatik, baina emakume gutxi dira gizonen bertsoan hainbeste aipatu dituztenak (honakoetan ere sexua gai hartuta), eta esaterako, Plazidaren beste ahizpak aipatzen diren bertsoak ez zaigu iritsi. Espero zitekeen Txirritari epelak erantzun zizkion Plazida ez zela mutu geratuko bera aipatzen zuten bertsolarien aurrean. Tamalez, ez zaigu bere bertsoak iritsi.

Behin Joxe Bernardok bertso hau bota zion Txirritari (Plazidagatik):

*Joxe Bernardo ikasia da
atea zeini ireki,
ta familiko buruz bidea
jarri nahi luke egoki.
Mutil zintzoa nola zaren zu
nire alabak badaki,
gure etxera joan zaitez ta
biziko zara ederki.*

Eta Txirritak erantzun:

*Zure alaba enpleatzeko
hartu dituzu ideak,
horretarako beharko ditut
etxeko eskubideak.
Terreno hoitan zabalduko'itut
simaurreak eta kareak,
muturra atzera beharko ditek
inguru hartan bareak*.*

* Bareatarrak baitziren otañotarrak.

Plazida Otañok eta Juan Joxe Ugarte Beldarrainek (bertsolaria hau ere, Pedro Mari Otañoren lehengusua, bien amak ahizpak izanik) erromantzeren bat izan zutela esaten da. Batean, hala kantatu omen zion Ugartek Joxe Bernardori:

*Gaur ikusi dut zure
alaba Plazida,
aspaldian horixe
ni hainbat hazi da;
mutilei begiratzek
fanfarroi hasi da,
gazterik ohartzeko
tokian bizi da.*

Otaño eta bere ingurua I liburuan aipatzen denez, Ugartek Joxe Bernardo-ekin hartu-eman asko zuen eta bere etxera sarritan iristen zena izan behar zuen. Bera sentitzen zuenean, Plazida "dotore agertzen zitzaion nonbait Juan

Joxeri". Horrelako batean honela bota omen zion Juan Joxe Ugartek:

*Plazidak entzuten du
Juan Joxeren boza,
sentitzen duenean
hartzen duen poza!
Neskatx umil batekin
behar dut esposa,
ez nuke nahi zu bezain
gallarda airosa.*

Ateraldiak

Plazidaren gizona, Joxe Migel Zaldúa, itzaina omen zen, karretoarekin ibiltzen zena. Baina urrutira joan gabe, enkargu motzak egingo zituen (tartean, etxetik gertu zuten tren estaziora). Joan-etorrian, askotan pasatzen zen euren Benta etxe ataritik. Eta Plazidari oihu egiten omen zion:

– Niretzako gosaria pronto al daukazu?
– Oraindik ez. Hurrengo bidaiarako preparatuko dizut.

Beste bidaiari etortzen omen zen, eta:

– Pronto al daukazu?
– Ez. Zopa eta arrautza bakarrik falta zaizkit jartzea.

Eta Joxe Migelen gosaria horixe izaten omen zen, zopa eta arrautza.

Goraxeago aipatu dugun liburuan, Zizurkilgo Serapio Mendizabalek kontatzen duenez, elegantea zen Plazida. Gainera, alabak larruzko berokia erregalatu zion. Beti kartera edo poltsa batekin ibiltzen zen. Behin batean, Teodosioneke nagusiak ikusi eta honela esan omen zuen:

– Hemen duk Plazida, bera baino poltsa handiagoarekin. Baina pezta bat ez dik eramango.

Plazidak aditu eta:

– Aizak: zenbaitek diruz beteta baino, nik hutsik hobeto luzitzen diat.

"Otañotar guziak hiltun egokiak ziren. Erantzuna beti prest".

Errekalde baserriko sukaldean ikasten zela hizketan, hala esaten zen. Behin baten batzuk beren umeren bat hizketan ikastera kanpora bidali behar zutela esaten ari zirela, hala bota zien amona batek:

– Hizketan ikastera kanpora bidali? Bidal ezazue Errekaldera.

Beste plazak

Teodoro Mujikak "horixe baietz! egingo ez zuten ba?!" erantzuten du emakumeek bertsorik kantatzen zuten galde-tuta. Non, ordea? Zein ziren inoiz plaza deitu ez diegun (gizonik gabeko) plaza horiek? Mujikari bi gune posible etorri zaizkio berehala burura: "Haurra jaio-takoan, atsolorra egiten zuten: emakume haren etxean biltzen ziren auzoko etxeetatik emakume bana. Bazkari ona egiten zuten eta ondoren beren biziko hizketaldiak egiten zituzten". Zizurkilgo batek hala esaten zion Mujikari: "Gure etxean mandioan Adriana (Plazidaren ahizpa), Mikaela Txintzarri (Mikaela Elizegi, Pello Errota bertsolariaren alaba famatua eta Plazidaren lehengusu txikia)... haiek egiten zuten tertulia hura ez hartu [grabatu] behar gaur diren tramankulu horietako batean!".

Eta asteartetan elkarrekin Villabonako feriara jaisten zirenean, hor ere bertsotarako gune aproposa izango zutela uste du Mujikak. "Elkarrekin jaisten ziren, Zizurkil goiko mendietatik". San Migel ermitatik gorako bideari Izpila esaten zaio. Burura datorkigun lehen adiera belar usaintsuarena da, baina Mujikak feriara jaisterakoan egiten zuten bidearekin lotzen du: "Hitz pila, horretatik ote datorren...". ■

bardoak

2016

nafarroako taldekako bertso ekimena

MARTXOAK 4, OSTIRALA

Txantreako Auzotegi Kultur Etxean, 19:30ean, bertso-merendua

OBARIO MALDIXOAK (Iruñea)	KIRU GARABARDO ETA PINTXO BAT (Barahain/Berrioar)
Igantzioko Biltoki elkartearen, 19:30ean, bertso-saioa	
UNIBERTSOLARIK (Lesaka)	ATEKABERTS (Leiza)
Etzarri-Aranazko Gaztetxean, 22:00etan, bertso-saioa	
EINNEKIN (Etzarri-Aranatz)	LARUNGO ANTENAK (Bera)

MARTXOAK 5, LARUNBATA

Berako Katakua ostatuan, 21:00etan, bertso-merendua

LARUNGO ANTENAK (Bera)	EINNEKIN (Etzarri-Aranatz)
---------------------------	-------------------------------

Informazio osoa eta sarturak

WWW.BERTSOZALE.EUS

KULTURKRITIKA


» LIBURUA

Aukeran nahiago bestela



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Akaso

JUAN GARZIA GARMENDIA

Erein, 1987

Ez dut ukatuko: Gorka Bereziartuak aipatu zuenetik, jada 2008 urrun hartan, nobedade ez diren literatur lanak hartzen dituen tarte hau abiatzeko, irakurketa maiteen artean izan dut Juan Garzia Garmendiaren *Itzalen itzal*. Pentsa, manifestazio bat antolatuko balitz, eta Bereziartuaren atxikimenduaz gainera, neronek ere sinatuko nuke Garziak berriro idatz dezan –1995ean *Fadoa Coimbran* eleberria argitaratu ondotik ez du fikziozko libururik atera–.

Broma-edo aurretik zetorren, ordea. Elkarriketa gogoangarri batean –esaten zituenengatik, baina galdetzen zizkieten kontu batzuei iskin egiteko abileziagatik ere bai–, “Euskal Bartleby bat bihurtu ote zara?” galde-tu zioten Volgako Batelariak. Erantzuna izan zen: “Zer pintatzen dut (edo nuke) oraingo euskal literaturan? Ez da manifestaziorik antolatu, behintzat, nik dakidala, idaztera itzul nadin. Konformatzen naiz haren leloa euskaratu izanarekin: ‘Aukeran nahiago ez’”.

Obra laburreko autore, bederen, honezkero aipatu dizkiogun bi liburuez gain, badu beste bat, aurrekaria, estreinakoa: *Akaso*. Ipuin liburua, guztira lau, tartean Ignacio Aldecoa saridun *Pernixio* luzea, gehi Anjel Lertxundi-ren hitzaurrea, gehi egilearen beraren epilogo. Aipatu elkarrizketan Garziak: “*Akasoko* pieza gehienak hor abiatu ziren, gaxtekeria eta guzti: aiton-amonen ipuin-munduaren hustmina, eskolako fraideekiko kontu-kitatze saioa”. Bigarren taldekoa litzateke, ale bakar, *Bele jolasak* izenekoa. Gainontzekoak, gutxi asko, bestekoak, nahiz *Petiri-landako kuso*a gehiago izan Lertxundik aipatzen zuen “ahozko tradizio narratiboa jaso eta literarioki

taxutu” horietakoa. Labur: lau ipuinek dutela nork bere izaera eta nortasuna.

Xabier Mendiguren Elizegik egin zion kritika bakana, agerkari honetantxe: “Ipuin liburua dugu hau, eta ona gainera. Oso ona ere esango genuke”. Tranpa da, baina gero-ra *Itzalen itzal* etorri dela ikusita, iruzkina iruditzen zait ausartegia. Esan nahi dut, bigarrenarekin puskaz gainditu zuela lehen-bizikoa. Gainera, ondoen jartzen ditu lehen multzoko ipuinak. Eta *Bele jolasak* izenekoaz esan zuen: “Pretentsio haundiak dituen arren –edo beharbada horrexegatik– ez zait iruditzen guztiz ondo gauzatu dituenik”. Niri, aldiz, ipuin horixe egin zait, beste ohikoa-goan artean, nabarmengarriena. Aldrebese-na, bai, baina ondorioz interesgarriena. Bi aldiz irakurri behar izan dudana bakarra; eta, segur aski, bi aldiz irakurtzeak pereza emango ez lidakeen bakarra.

Mendigurenak, 1988an: “Juan Garziak narraziogintzan segituko duelako esperantzan geratzen gara beraz”. Urteak pasa dira, baina esperantza ez da galdu. Manifestazio bat antolatu behar badugu ere. Nahiz, aukeran nahiago bestela. ■



Juan Garzia

» TELEGRAMA

Harkaitz Canok idazle ofizioari buruz hitz egingo du Bilboko Alondegian AZ Letra Eskolak antolatutako tailerraren barruan: martxoaren 4an da zita, 19:00etan *STOP* Doinu gogorren zale? Durangoko Plateruenan huts egin ezin duzun zita martxoaren 5ean: **Anestesia** eta **Eraso** talde beterranoek astinduko dute gaua *STOP* J. A. Artzeren lanean zehar ibilbidea proposatzen du **Ikimilikiliklik** erakusketak. Martxoaren 5ean zabalduko dute Miarritzeko mediatekan, 17:00etan hasiko den proiektio batekin *STOP*

» DISKOA

Berrasmatzeko askatasun osoa



Iker Barandiaran

**JP Lohian & Klonen Klana**

JP LOHIAN & KLONEN KLANA

Lohia Records

Joseba Ponce



Harrituta nauka disko honek, baina baita ere sortu duen zalapartak. Diskoa doto-rea da oso, eta erabat ezohikoa, arriskatua. Joseba Poncek, beste behin, erakutsi digu jenio bat dela eta bere sorkuntza gaitasun ikaragarria azaleratzeko orduan ez dituela oraindik mugak ezagutu. Barrenak askatzeko idatzi ditu kantu hauek eta gauzatu duen bildumak hartzaile zehatz bat du: Joseba bera. Ez du inorekin ezkondu nahi izan; eta orain arte igeri egin izan duen parametroetan arrakasta ziurtatuta izan arren, fokurik ez dagoen ur sakonenetan –sakonera propioetan– arrain abisalen gisan buzeatu nahi izan du oxigeno eta bestelako bermerik gabe. Hala, ibilbidean izandako zaleek gertu ez dituzten psikodelia, pieza orkestralak eta beste ere ekarri ditu ur ertzera. Horregatik ziur nago Joseba bera dela zalapartak gehien harritu duena.

Aurretik ezagutzen ez dutenentzat bi arrasto: JP Joseba Ponce Hondarribiko burmuin geldigorra da, Dut eta Kuraia errailetako taldeen sortzaile eta konposatzaile nagusia, 90eko hamarkadako eta bigarren milurteko Euskal Herriko rockean zizelkatutakoak. Orain Josebak bakarkako lana osatu du lohian murgildu eta dena emanda. Bereak dira kantuak eta grabatu ditu instrumentu guzti-guztiak. Gainera, diskoa berak diseinatu eta argitaratu du.

Goazen barrenera... Teklatu langido batek, ia elizkoiak, egiten digu harrera

eta erritmo pausatu baten kadentzian *Alperrik da apaintzeak* asko du 70eko hamarkadako kantu majestuoso eta ia orkestraletatik, nahiz eta tartean stoner espazialaren zantzuak aurkitu. *Ez eguna* irekiagoa eta anitzagoa da: badu 2016ko stonerretik, post-hardcorearen esentzietatik eta baita rock gitarrero eta bizienetik. *Beldurra* maltzur hasten da, gordin, eta melodia beti presente duela new wave edo post-punk kutsu interresgarria hartzen du oreka bitxi batean gitarra Kuraieroak gailentzen diren arte. Hit-etako bat da. *Kantu itsaskorra* abesti poperoa izateko jaio zen, baina... zelatan dagoen baxu misterioitsuak eta distortsioak psikodeliara amiltzen dute, fenix hegaztiaren gisan rockak salbatu arte.

Diskoaren bigarren aldea, berriz, *Hiruki beltza* borobilak irekitzen du psikodelia eta Iparraldeko kantugileak ezkonduz, gerora hard-rockak eta progresiboak bere eremura eramanez. *Lobby hilobi* erritmo biziagokoa da eta alaiagoa, kiribil itsaskorra. *Profanazioa* abesti osoa da, garapen handikoa: oso-oso barnekoa, hunkitzen duena eta 70eko esentzian zeharo bustia; eskerak hammond-aren indarrak kemena ematen digun! Bukatzeko, *Sekretua*, misterioitsutik eta irmotasuna ezin ezkutatetik asko duen Josebaren upelategiko kantu pop-rockeroa. Ederra lohia, ederra lana! ■

Dantza-korapiloak

'SOKA' ERAKUSKETA

Donostiako Koldo Mitxelenako *Ganbara* aretoan ikusgai dago, apirilaren 2ra arte, Euskal Kultur Erakundeak ekoiztutako *Soka, euskal dantzaren urratsetan* erakusketa ibiltaria, 2015eko irailean Biarritzen estreinatu zena. Otsailaren 25ean bisitaldi gidatua izan zen, Juan Antonio Urbeltz eta Oier Araolazaren eskutik.



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Unai Brea
@unaibrea



Multimedia, lau hizkuntzatan emana, 150 metro koadro, 400 ilustrazio baino gehiago, film zaharrak eta hainbat artxibo orain arte ia ezezagun, hiru dimentsioko irudiak, propio egindako bideo sorkuntzak... Horiexek, Euskal Kultur Erakundeak antolatutako *Soka* erakusketaren ezaugarriak, fitxa teknikoak nahi baduzue. Asteotan, apirilaren 2ra arte, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean ikus eta entzungai dago, auskalo nora joango den gero.

Datuok aski lirareke, bestela fidatu nire hitzaz, bere horretan balio handikoa den erakusketa batez ari garela jakiteko. Baina gauza bat da hori eta beste bat, gainera, euskal dantza tradizionalak egun dituen bi *pope* nagusien gidaritzapean –barkatu didatelakoan– bertan murgiltzea.

Aukera horrekin gozatu genuen otsailaren 25eko arratsean. Oier Araolaza eta Juan Antonio Urbeltzen eskutik abiatu ginen *Soka*-n, eta kasu honetan esaldia ez da

metaforikoa: benetan elkarren eskuei heltzeko eskatu ziguten bisita gidatua abiatzeko. Hala geundela ikasi genuen gutxienez 500 urtez modu horretan, dantzatu ez ezik, bikote harremanak bideratu zirela Euskal Herriko plazetan, XVIII. mendean elizak bekatu izendatu zuen arte azalen kontaktu lizuna, eta haren orde zapia ezarri.

“Hori izan zen amaieraren hasiera”, dio Araolazak; “haren funtzioa galduta, gazteek soka-dantza utzi zuten”. Bigarren kolpea izan zen taldean aritzeko ohitura-tik norbanako baten erakustaldi gimnastikora igarotzea, horixe baita gaur egun aureskua. Nolanahi, soka-dantzaren tradizioak euskaldunok oso berdintasun zaleak garela adierazten du, Juan Antonio Urbeltzen esanetan. “Horregatik ez daukagu mito heroikorik”.

Behin eskuak askatuta, erakusketaren atal batetik bestera joan ginen, mekanika jakinari segituz: Araolazak galderak egin,


Urbeltzek erantzun. Bai modu jorian erantzun ere, tarteka kaotiko samar, erudiziozko ozeanoan bizipenak txertatuz. Ikasitako batzuk: tradizioa eta sorkuntza guztiz bateragarriak dira, ondo eginez gero; asmakizunean ere fideltasuna zor zaio jasotako ondareari; eta Frantziako erregeen gortean omen zeuden euskal dantzarien arrastorik ez da ageri erregrastro historikoan, baina badaude zantzuak Milango gortearekin lotuta.

Generoari buruzko panela izan zen sokaren azken korapiloa. “Hemen daude erakusketako irudi zaharrenak”, argitu zuen Oier Araolazak; “bitxia da, daukagun zaharrena emakume batena delako; askotan esan da euskal dantza batez ere gizonen dantzatu dutela, eta hemen ikus ditzakegu emakumeak 1921ean aureskua dantzatzeko, arraunlari talde baten omenez”. Emakumeak eta taldean, elkarri eskua emanez. XX. mendeak galarazitako gauzak. ■

Egilea: Ana Zambrano

Gurutzegrama

Gaia: Mediterraneoko uharteak



Ezker-eskuin:


1. Kariaz. Barre eragile. Zerbait eragozten duena. 2. Airean dauden gorputzen mugimendua aztertzen duen mekanikaren alorra. Margul. 3. Sindikatu abertzalea. Gurtzeko ekintza. **Uharte hau Siriatic mendebaldera eta Turkiatik hegoaldera kokatuta dago, bere hiriburua Nikosia da.** 4. Zurezko hesi. Ileak. 5. **Hiruki formako uharte hau Mediterraneo itsasoko handiena da. Barnealdeko lurraldea menditsua da, bertan dago Etna sumendia, Europako sumendi aktiborik garaiena.** 6. Hatz muturren gaineko zafra. 7. Liskar. Pareta. 8. Ale-neurri zaharra. Ezertan aritu gabe. 9. Jantzi luze eta zabala. Norantz. Tokikotu aditzaren infinitiboa. 10. Nekazariaren lanabes. Urdin antzekoa. Tresna.

Goitik behera:

1. Kaltzio oxido. **Irla hau uhartedia osatzen duten hiru uharteetatik handiena da eta bertan Valleta hiria dago, herrialdeko hiriburua.** 2. Autonomi Estatu. Ume, sein. 3. Oinarrizko edari. Larruazaleko gaixotasun. 4. Begirada. Portu. 5. ... hoc, latinezko lokuzioa. Geziak jaurtitzeko arma. 6. Sabeleko orbain. Siriako biztanle. 7. Nazionalsozialista. 8. Kasa, kontura. 9. Silaba hinduista. Nori atzizkia. 10. Gizonezko izena. 11. Ez... egin, itsuarena egin. 12. Kausaz. Entzuten ez duena. 13. Ahoratu aditzaren infinitiboa. 14. Alde, eremu. 15. **Greziako uharterik handiena eta Mediterraneo bosgarrena. Bere hiriburua Heraklion da.** 16. Sortu zintuena. 17. Zerez atzizkia. Arrantzarako sare mota. 18. Guzti. Zakur. 19. Basati. Errepikatuz, gorotza. 20. Itsaspeko hondar eta lohietan bizi den ezkatari gabeko arrain. Idi hitz-elkarketan. 21. Italiako diru zaharra. Errepikatuz, txori mota. 22. Elektrizitateaz baliatzen dena.

Betegrama


Taulan hutsik agertzen diren laukiak osatu zeharretara eta goitik behera, hitz guztiak irakurri ahal izateko.




5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

- 1.- Baia luzanga.
- 2.- Konponbidea eskatzen duen gai.
- 3.- Etenaldi.
- 4.- Hankaren atal.
- 5.- Logale handi.



Soluzioak



5. Loeri
4. Izter
3. Tarte
2. Arazo
1. Datil

5x5:

Ku. 22. Elektrikoa.

Bolanta. 18. Guzi, Or. 19. Ohil, Ka. 20. Zapo, It. 21. Lira.
13. Ahora. 14. Zona. 15. Kreta. 16. Ama. 17. Az.
9. Om, Ri. 10. Migel. 11. Ikusiarena. 12. Kariaz, Gor.
4. So, Kai. 5. Ad, Arku. 6. Zil, Sitar. 7. Naz. 8. Kabuz.
Goitik behera: 1. Kare, Malta. 2. Ae, Haur. 3. Ur, Akne.
Urdinkara, Aparatu.
8. Lakar, Egonean. 9. Tunika, Norat, Tokiko. 10. Are,
Biloak. 5. Sizilia. 6. Azazkal. 7. Ahakar, Horma.
2. Aerodinamika, Zuhail. 3. Lab, Gur, Zipre. 4. Zuresi,
Ezker-eskuin: 1. Kausaz, Komiko, Eragozle.

Nicolas Leport-Letexier. Betiereko Induljentziako Serora



Plazer handia hartzen du Nicolas Leport-Letexierrek, serora jantzia soinean, heteronormatibitatea zalantzan jartzen. Betiereko induljentziako serora izateko botoak eman zituen 2007an, LGBT komunitatearen historia transmititzeko engaiamendu militantea hartuz. 1979an San Frantziskon sortu mugimenduak 1.300 bat serora ditu gaur egun. Lau urtero egiten duten konklabea dute irailean Berlinen.

“LGBT komunitatearen historia transmititu behar dugu”



Jenofa Berhokoirigoin

ARGAZKIAK: N LEPORT-LETEXIERREK UTZIAK

Geneseko gailurrak markaturik

“Mugimendu altermundialistan nengibilen buru-belarri. Geneseko G-8aren gailurrean, Carlo Giulianiaren erailketak izugarri inarrosi ninduen eta ohartu nintzen ez nintzela ideientzat hiltzeko prest. Nonbaitik ere, garai horretan Betiereko Induljentziako Serorak geroz eta gehiago gurutzatzen nituen manifestazioetan. Haienak funtzionatzen zuela ohartzen nintzen”.

Erakartzen zintuzten.

Nire homosexualitatea onartu nuen garai horretan. LGBT komunitateak eraman borrorak deskubritzen hasi nintzen eta sekulako irakaspenak jaso nituen. Serorak bikainak iruditzen zitzaizkidan arren, ekintzen formak jentzen ninduen, muturrekoegiak iduritzen zitzaizkidan. Berez ontsa ikasiriko mutil bat naizelako, kontsentsuan dagoena. Lagun baten suizidioa elektrotxokea izan zen eta aisetasunetik ateratzeko erabakia hartu nuen. 2006an hasi nuen prozesua eta urte bat berantago serora nintzen.

Agnostikoa da mugimendua.

Pobrea, agnostikoa eta barregarria; horra nolakoa den gurea. Erabat serioa eta aldi berean erabat zernahi da gurea. Ahalkea eta errua alde batera utzi eta bizipoza aldarrikatzen gabilta.

Lehenak 1979ko Pazko astelehenez agertu ziren San Frantziskoko Castro gay eta lesbianen auzoan, metraileta arrosa faltsuak esku artean.

“Jainkoaren maitasuna eskuratzeko hil ezazu homosexual bat” errepikatzen zebilen Anita Bryant-en garai betean ginen, eskuin gogor kristaua arkaz zebilen. Testuinguru horri buruzko kritika zen. Aldi berean, LGBT komunitatearen barneko kritika ere bazen. Castro clone-n garaia zen eta ultragizonkeria matxista heteronormatu hori kritikatu nahi izan zuten. Heterozentrismoaren aurka zebiltzan Radical Faeries taldekoak ziren hamar ekintzailetarik zazpi.

Sekulako oihartzuna ukan zuen ekintzak.

Bai, lagun arteko txiste erokka izan behar zuen sekulako oihartzuna ukan zuen. Zulo bat betetzen zutela ohartu ziren berehala. Konturatu ziren seroraz jantzearekin, andana batek betebeharrak espiritualetatik gomendio uzten ziotela.

Hortik urte batera agertu zen hiesa.

Bai, oraindik hiesa deitzen ez zen gaitz beltz hori agertu zen. Laster erreakzio-natu zuten; militante sutsuak izanki, sekulako komunikazio kanpainak eta erieibanatzeko diru bilketak hasi zituzten.



"Mozorroak erakartzen du eta diskurtso politikoarekin jendea ustekabeen atzematen dugu. 35 urte eta gero, heteronorma eta patriarkatua galdekatzen eta inarrosten segitzen dugu".

Seroraren itxurak indar handiagoa hartu zukeen.

Argi eta garbi. Elizak ez zituen hiesaz hildakoak ehorzten, "gayen minbiziaz" hilak zirelako. Drama ikaragarriak ziren, trauma handiak. San Frantziskoko gayen %70 zen hamar urtez hil! Sekulako hekatonbea, isilean gertaturikoa. Ronald Reaganek ez zuen behin ere bere kargualdian hiesa hitza ahoskatu. Kristauek zioten haien bekatuen ondorioa zutela, medikuek ez zuten deus proposatzeko eta politikarien iritziz, homosexualak, drogazaleak eta prostitutak ziren hunkiak eta horiek gabe pasa zitekeen jendartea. Serorei mutil lagunaren ehorzketa sinbolikoa egitea ala hil aitzin sinbolikoki ezkonaraztea galdatuz hurbiltzen zitzaizkien anitz.

Hamarkada izugarri beltza.

Horri guztiari izu-ikara giroa gehitu behar zaio. Ez genekien zer zen, ez eta nola atzematen zen. Doi bat emantzipazio eta askatasun lortu orduko, horra hor zorigaitza... Ez gara ohartzen zein heinetakoa izan zen traumatismoa. Ho-

mosexualen eskubideen aldeko borrokaren oinarrian dagoen grina bizipen horietan dugu kausitzen. Oso bortitza izan zen eta nonbait, oso aberatsa ere bai. Arrazoi pertsonalengatik, serora batzuk San Frantziskotik joan ziren eta komentuak sortu zituzten iristen ziren hirietan. Medikuntza-ikerikuntzan erien parte hartzea bultzatuko zuen borroka horrek ere. LGBT komunitateak eta batez ere Act Up taldeak zuen hori inposatu, urgentzian.

Hiesak aitzina segitzen du.

Garaian, Mendebaldeko gizon txuri pribilegiatuak ziren ezaxolakeria handiengan hiltzen; horregatik zen azkenean erantzun bat eman. Izurriak segitzen du Afrikan, ezaxolakerian halaber. Hemen, etorkinak, ingurugiro ez pribilegiatuko gazteak eta emakume transexualak dira gehienik hunkiak; ez dira erakargarriak, ez da hiesa anitz aipatzen. Horregatik diot LGBT komunitatearen historia transmititu behar dugula, bai belaunaldi zaharraren onerako, baita gazteenaren onerako ere. Jakin dezagun ezaxo-

lakeria handiengan, gay belaunaldi oso bat hil zuela hiesak.

Zertan da jendarte heteronormatuari tal-ka egitearen xedea?

Eragina testuinguruaren arabera da. Frantzia gisako herrietan, nazi eta katoliko integristez aparte, gayen partetik ditugu erreakzio bortitzenak, diote karkaturan garetla eta guztiok ez garetla lumadunak. Gay eta lesbiana horien umore eskasa kritikatzeko segitzen dugu. Parisen inoiz ez gara bakarrik ateratzen, arriskutsua delako, San Frantziskon berriz ia instituzio bat gara. Baserri munduan berriz, horrelakorik izan litekeela ere ez dute imajinatzen. Usu ikuspen ezak baldintzatzen du tolerantzia, onartua izateko heteronormatua izan behar da baserri munduan. Bizi guztian subertsioaren bandera izatearen gogorik ez ukaitea ulertzen dut... Baina seroron betebeharra hori da. Mozorroak erakartzen du eta diskurtso politikoarekin jendea ustekabeen atzematen dugu. Beraz bai, 35 urte eta gero, heteronorma eta patriarkatua galdekatzen eta inarrosten segitzen dugu. ■



Otegi free man dela!

BERANDUOTEGIk jakin duenez, Arnaldo Otegi espetxetik irten da. Beste batzuek ere jakin dute, eta makina bat omenaldi prestatu diote ezker abertzaleko liderrari Euskal Herri osoan barrena. Horietan guztietan Rufi Etxeberriak azken bisitan emandako diskurtsoa irakurtzeko konpromisoa hartu du El-goibarkoak. “Bertso afarietarako erri-madun bertsioa eta guzti dauka”, jakinarazi du Sortuko prentsa bulegoak.

Beste alde batetik, dena prest dago Otegiren bizitzari buruzko filma egiteko. *Inbildus* izango du izena eta Morgan Freeman aktoreak egingo du Otegiarena. “Deskuiduan berriro kartzelara sartzen badute behin errodahea hasita, ti-ta protagonista aldatu eta Freemanen ordez Presoman kontratatuko genuke rolerako”, adierazi du errodahe taldeko pasta betaurrekodun kide bixkor batek.

SAREAN ARRANTZATUA

Zatiketak bizi gaitu



Europar Batasunak, 2012ko Bake Nobel saridunak, maite zaitu



Organikoaren kubora botako dituzte Arrasaten eta Zumaian itxura “garbia” ez duten pertsonak

Arrasate eta Zumaia kaleetan kartelak jartzeko aukerak asko murriztu dituzte txukuntasunaren izenean. Orain, bi herri horietako udalek hurrengo urratsak iragarri dituzte: itxura “garbia” ez duten pertsonak hondakin organikoaren kubora botatzeko kanpaina abian jarriko dute. “Koloareak ondo konbinatzen ez dituztenak, ilean txurroak dauzkatenak eta ‘borroka’ itxura duten guztiak kuboetan jasotzea da xedea”, egitasmoa aurkeztean azaldu dutenez. Bilketa eraginkorragoa egiteko atez ateko sistema kontuan hartu ote duten galdetuta, bi udaletako ordezkariak gurutze bana atera eta “vade retro Satanas!” erantzutera mugatu dira.



“la oposizio guztia bi kontainer hauetan sartu diagu”, azaldu du prentsaurrekoaren ondoren Zumaia alkateak.

ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
| HEZKUNTZA ERALDATZAILEA
EUSKALTZALETASUNA
ELIKADURA BURUJABETZA
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA
SEXU ASKAPENA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilerro ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



Balio hezitzaileak sustatu nahi ditugu Argian, bide horretan ari den hezkuntza formala eta ez-formala lagun: haurren parte-hartzea eta erabakitze ahalmena aintzat hartzen duen hezkuntza, hezkidetzan, aniztasunean eta elkarbizitzan oinarritua. Komunitatea eta auzolana abiapuntu, denon artean belaunaldi askeak eta autonomoak heztea dugu amets.

MARTXOKO ZOZKETAK



Berdean hezi eta Haurren hiria
(4 liburu)

Txatxilipurdi elkarte
www.txatxilipurdi.com



Hazi Hezi aldizkariaren
harpidetza

Hik Hasi elkarte
www.hikhasi.eus/aldizkariaH.php



Urtxintxaren materiala
(4 material saski)

Urtxintxa Eskola
www.urtxintxaeskola.org



Perretxiko Zaindariak
(3 jolas)

ARGIA
www.argia.eus/denda

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

**“ERAKUTSIOZU
NORK AGINTZEN
DUEN”**

**“EZ HASERRETU,
EZ DA
HAINBESTERA KO”**

**Berdintasun eza
ez da berez sortzen,
egin egiten dugu.**

**Posible dugu aldatzea.
Egin dezagun berdintasuna.**

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna

